



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2026ko ekainaren 12a

64. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru-lege proiektuak:

—11-26/LEY-00004. Foru-lege proiektua, Gazteriari eta Belaunaldiarteko Justiziari buruzkoa (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-26/MOC-00099. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako biogasaren eta biometanoaren sektoreari buruzko lurralde-, ingurumen- eta agronomia-plangintza bat aurkez dezan, ezarpen-irizpide argiak eta objektiboak ezarriko dituen. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztu du (32. or.).

—11-26/MOC-00102. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lehen sektoreari, nekazaritzako elikagaien sektoreari eta landa garapenari eragiten dioten administrazio-prozedurak berrikusi, sinplifikatu eta arindu ditzan. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztu du (35. or.).

—11-25/MOC-00165. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioako Ministerioa premia dezan Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak berriro komunika diezazkion Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko Ikuskaritza Medikoari Nafarroako enpresetako langileei buruzko datu-baseak. Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Batzordean izapidetzea (37. or.).

—11-26/MOC-00003. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako gizarte-deskonexioko egoerari buruzko diagnosi bat presta dezan eta bakardadetik gizarte-konexiora pasatzeko estrategia bat zehaztu dezan. Lehendakaritza eta Berdintasun Batzordeak onetsi du (37. or.).

—11-26/MOC-00094. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lan-mahai bat susta dezan desgaitasun-balorazioak lortzeko egon litezkeen oztopoak zehazteko. Etxebizitza, Gazteria eta Migrazio Politiketako Batzordeak onetsi du (38. or.).

—11-26/MOC-00088. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita 2026ko abenduaren 31 baino lehen lizita ditzan Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuan bidegabeko aberastearen egoeran dauden kontratuak. Unibertsitate, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko Batzordeak ezetsi du (38. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- 11-26/POR-00202. Galdera, Sendaviva parkeko obren esleipenean izandako faboritismoari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (39. or.).
- 11-26/PES-00167. Galdera, 2022-2030eko aldirako Europako Haurren Bermearen Estatuko Ekintza Planari buruzkoa. María Olga Chueca Chueca andreak egin du (39. or.).
- 11-26/PES-00168. Galdera, Mendiolako auzoaren eta N-121-A errepidearen bide berriaren arteko lotuneari aurkeztutako alegazioei buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (40. or.).
- 11-26/PES-00169. Galdera, Mendiola auzoak bi norabideetan N-121-A errepidera izanen dituen sarbide berriei buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (41. or.).
- 11-26/PES-00170. Galdera, Nafarroako Gobernuak Baztango Udaleko eta Almandozko ordezkariekin izandako bilerei buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (41. or.).
- 11-26/PES-00171. Galdera, Mendiola auzotik N-121-A proiektu berrira aurreikusten diren sarbideen aldatetegi buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (42. or.).
- 11-26/PES-00172. Galdera, Abaigar eta Goñiko kanpaldiei buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (42. or.).
- 11-26/PES-00173. Galdera, ChinaLink ESGT eta Energy China enpresekin edo horiekin lotura duten entitateekin eginiko bilerei buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (43. or.).
- 11-26/PES-00174. Galdera, ChinaLink ESGT eta Energy China enpresekin edo horiekin lotura duten entitateekin lortutako akordio, konpromiso edo elkar ulertze formal edo ez-formalei buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (44. or.).
- 11-26/PES-00175. Galdera, ChinaLink ESGT eta Energy China enpresekin izandako lehen harremanari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (45. or.).
- 11-26/PES-00176. Galdera, ICTS taldeari zerbitzuak esleitzeari buruzkoa. Miguel Garrido Sola jaunak egin du (45. or.).
- 11-26/PES-00177. Galdera, Nafarroako administrazio publikoetako Funtzio Publikoaren Mahai Orokorreko ordezkartza sindikalari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (46. or.).
- 11-26/PES-00178. Galdera, Artziko jauregiaren egoerari eta hura irekitzeko atzerapenaren arrazoiari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (47. or.).
- 11-26/PES-00179. Galdera, Garraioetako Ministerioak Zaragoza-Castejón abiadura handiko trenbiderako proposaturiko ibilbideak nekazaritzan, lurraldean eta ureztatze-azpiegiturretan eragin ditzakeen kalteei buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (48. or.).
- 11-26/PES-00180. Galdera, Txinatar enpresekiko konpromisoei buruzkoa. Ana María Elizalde Urmeneta andreak egin du (48. or.).
- 11-26/PES-00181. Galdera, ChinaLink ESGT eta Energy China enpresekiko edo haien filialekiko harremanei edo akordioei buruzkoa. Ana María Elizalde Urmeneta andreak egin du (49. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-25/PEOP-00002. Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzupeko artxiboko eta dokumentu-kudeaketako goi-mailako teknikaria izateko lanpostu bat, funtzionario-araubidekoa eta A mailakoa, oposizio bidez betetzeko. Izendapen-proposamena (50. or.).
- 11-25/CCPE-00002. Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariaren ebazpena, zeinaren bidez María Dolores Saiz Agustín andrea izendatzen baita Nafarroako Kontuen Ganberaren funtzionario, sistema informatikoetako erdi mailako teknikari lanpostuan (51. or.).

A saila:
FORU-LEGE PROIEKTUAK

11-26/LEY-00004. Foru-lege proiektua, Gazteriari eta Belaunaldiarteko Justiziari buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 8an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artiku-luak aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2026ko ekainaren 3an hartutako Erabakiaren bidez, Gazteriari eta Belaunaldiarteko Justiziari buruzko foru-lege proiektua igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako hau ERABAKI-TZEN DA:

1. Xedatzea Gazteriari eta Belaunaldiarteko Justiziari buruzko foru-lege proiektua prozedura arruntari jarraituz izapidetu dadila.

2. Etxebizitza, Gazteria eta Migrazio Politiketa-ko Batzordeari esleitzea proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale-an argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik hamar egun balioduneko epea irekiko da, **2026ko irailaren 8ko 12:00etan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, talde parlamentarioek eta foru-parlamentari-ek zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote foru-lege proiektuari.

Iruñean, 2026ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru-lege proiektua, Gazteriari eta Belaunaldiarteko Justiziari buruzkoa

Zioen azalpena.

Atariko titulua. Xedapen orokorrak.

1. artikulua. Xedea.
2. artikulua. Helburua.
3. artikulua. Aplikazio eremu objektiboa.
4. artikulua. Aplikazio eremu subjektiboa.
5. artikulua. Printzipio orokorrak.
6. artikulua. Gazteen eskubideak eta betebeharrak.

I. titulua. Gazteriaren arloko eskumenak eta administrazio antolaera.

7. artikulua. Gazteriaren arloan eskumenak dituzten administrazio publikoak.

8. artikulua. Gazteriaren arloko eskumen motak.

9. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eskumenak gazteriaren arloan.

10. artikulua. Gazteriaren arloko eskumena duen departamentuaren eskumenak.

11. artikulua. Nafarroako Gazteriaren Institutua.

12. artikulua. Kide anitzeko kontsulta eta koordinazio organoak.

13. artikulua. Gazteriaren arloan toki entitateek dituzten eskumenak.

II. titulua. Gazteen parte-hartzea.

I. kapitulua. Xedapen orokorrak.

14. artikulua. Definizioa.
15. artikulua. Gazteek parte hartzeko bideak.
16. artikulua. Gazteen parte-hartzea sustatzea.
17. artikulua. Gazte boluntariotza.

18. artikulua. Gazteen parte-hartze transakzionala.

1. atala. Gazteen parte-hartzerako erakundeak.

19. artikulua. Gazte erakundeen bitartez parte hartzea.

20. artikulua. Asoziazionismoa eta gazte erakundeak sustatzea.

21. artikulua. Gazte erakundeen ordezkagarritasuna.

22. artikulua. Gazte talde informalak.

23. artikulua. Gazte erakundeen errolda.

2. atala. Gazteek parte hartzeko bide osagarriak.

24. artikulua. Parte-hartze demokratikoa, espezializatutako bide osagarrien bidez.

25. artikulua. Gazteekiko elkarrizketa.

26. artikulua. Gazteei kontsulta egitea.

27. artikulua. Nafarroako Gazte Parlamentua.

28. artikulua. Gazteen mahaiak.

29. artikulua. Harremanen, informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidez parte hartzea.

30. artikulua. Gazteriaren arloko aurrekontu parte-hartzaileak.

II. kapitulua. Gazteriaren kontseiluak eta foroak Nafarroan.

1. atala. Nafarroako Gazteriaren Foroa.

31. artikulua. Izaera eta xedeak.

32. artikulua. Eginkizunak.

33. artikulua. Osaera, antolaketa eta funtzionamendua.

2. atala. Gazteriaren eskualdeko eta tokiko kontseiluak.

34. artikulua. Izaera eta xedeak.

III. titulua. Gazteriaren arloko politikak.

35. artikulua. Definizioa.

36. artikulua. Gazteriaren arloko politiken tipologia.

I. kapitulua. Gazteriaren arloko politika espezifikoak.

37. artikulua. Gazte politika espezifikoak.

1. atala. Gazteei informazioa eta aholku ematea.

38. artikulua. Gazteek informaziorako eta aholkularitzarako sarbidea izatea.

39. artikulua. Gazteendako Informazio eta Aholku Zerbitzuen Sarea.

2. atala. Hezkuntza ez-formala.

40. artikulua. Hezkuntza ez-formala.

3. atala. Gazteendako zerbitzuak eta jarduerak.

41. artikulua. Gazteendako zerbitzuak eta jarduerak sustatzea.

42. artikulua. Europako Gazte Txartela programa.

43. artikulua. Gazteendako jarduerak.

4. atala. Gazteendako instalazioak eta ekipamenduak.

44. artikulua. Gazteendako instalazioak eta ekipamenduak.

5. atala. Gazteriaren arloko profesionalak.

45. artikulua. Gazteriaren arloko profesionalak.

46. artikulua. Gazteriaren arloko profesionalen trebakuntza.

47. artikulua. Gazteriaren arloko enpleguaren kalitatea.

48. artikulua. Gazteriaren arloko Profesionalen Sarea.

6. atala. Gazteriaren arloko aitortzak.

49. artikulua. Gazteria Sariak.

50. artikulua. Beste aintzatespen mota batzuk.

II. kapitulua. Zeharkako politikak.

1. atala. Belaunaldiarteko justizia.

51. artikulua. Gazteriaren arloko politika, belaunaldiarteko justiziarako gako gisa.

52. artikulua. Belaunaldiarteko eraginaren txostena.

2. atala. Autonomiarako oinarrizko politikak.

53. artikulua. Gazteak, enplegua eta ekintzailetza.

54. artikulua. Gazteak eta hezkuntza.

55. artikulua. Gazteak eta etxebizitza.

56. artikulua. Gazteak eta osasuna.

3. atala. Garapen pertsonalerako politikak.

57. artikulua. Gazteak eta berdintasuna gizonen eta emakumeen artean.

58. artikulua. Gazteak, sexu aniztasuna eta genero aniztasuna.

59. artikulua. Gazteak, migrazioa eta kulturartekotasuna.

60. artikulua. Gazteak eta desgaitasuna.

4. atala. Sarbide politikak eta ingurunearekiko harremanak.

61. artikulua. Gazteak eta kultura.

62. artikulua. Gazteak eta kirola.

63. artikulua. Gazteak, aisialdi hezigarria eta aisialdia.

64. artikulua. Gazteak eta informazioaren gizartea.

65. artikulua. Gazteak eta euskara.

66. artikulua. Gazteak, ingurumena eta ekologia.

67. artikulua. Gazteak eta landa ingurunea.

68. artikulua. Gazteak, mugikortasuna eta garraio publikoa.

69. artikulua. Gazteak Nafarroatik kanpo.

70. artikulua. Gazteak eta memoria demokratikoa.

71. artikulua. Gazteak eta kontsumo jasangarria.

III. kapitulua. Gazteriaren arloko politikak planifikatzea eta gazteen errealitateak ebaluatzea.

1. atala. Gazteriaren arloko politiken plangintza.

72. artikulua. Nafarroako Gazteriaren Estrategia.

73. artikulua. Nafarroako Gazteriaren Estrategia egiteko eta onesteko prozedura.

74. artikulua. Nafarroako Gazteriaren Estrategia berrikustea.

75. artikulua. Nafarroako Gazteriaren Estrategiaren jarraipena eta ebaluazioa.

76. artikulua. Gazteriaren planak.

2. atala. Gazteen errealitateak ebaluatzea

77. artikulua. Gazteen gizarte errealitateari buruzko txostena.

IV. titulua. Baliabideak eta finantzaketa.

78. artikulua. Finantzaketa iturriak eta printzipioak gazteriaren arloan

79. artikulua. Erabiltzaileek finantzaketan parte hartzea.

V. titulua. Ikuskapena eta zehapen-araubidea.

I. kapitulua. Gazteriaren arloko ikuskapena.

80. artikulua. Ikuskatzailearen eskumenak eta eginkizunak.

81. artikulua. Ikuskatzaileak.

II. kapitulua. Zehapen-araubidea.

1. atala. Arau-haustekak.

82. artikulua. Gazteriaren arloko arau-haustekak.

83. artikulua. Erantzuleak.

84. artikulua. Arau-hauste arinak.

85. artikulua. Arau-hauste astunak.

86. artikulua. Arau-hauste oso astunak.

2. atala. Zehapenak.

87. artikulua. Zehapen-prozedura.

88. artikulua. Zehapen motak.

89. artikulua. Zehapenen mailakatzea.

90. artikulua. Arau-haustekak eta zehapenak preskribatzeko araubidea.

91. artikulua. Organo eskudunak.

Xedapen gehigarri bakarra.

Xedapen indargabetzaile bakarra.

Azken xedapenetako lehena.

ZIOEN AZALPENEA

Gazteak egungo gizartearen ezinbesteko osagaia dira; orainean, garapen komunerako eragile estrategikoak dira, eta edozein gizarteren etorkizuna definituko duen biztanleriaren sektorea osatzen dute. Hori dela eta, ezinbestekoa da esku hartzea gazteek dituzten egungo baldintza sozial eta materialetan. Hala, Nafarroako Gobernuaren erantzukizuna da gazteen orainaz arduratzea, hori ere badelako gure gizartearen orainaz eta etorkizunaz arduratzea. Gaur egungo munduak aldaketak, arazoak eta aukerak eskaintzen dizkie gazteei; egunetik egunera, heterogeneoagoa eta iragarrezinagoa da egoera. Horrenbestez, gazteriaren arloko politiken ardura duten entitateek egoera ezagutu behar dute, bai eta ziurtasunez azkar erreakzionatu ere, errealitate aldakor horri erantzun egokia eman ahal izateko.

Gazteriaren arloko politiketarako lege esparru nagusia Espainiako Konstituzioaren 48. artikuluan dago. Hain zuzen ere, artikulua horrek botere publiko-erantzukizunak espezifikoki manatzen die susta dezatela gazteek parte-hartze libre eta eraginkorra izatea garapen politiko, sozial, ekonomiko eta kulturean. Halaber, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organiko-

aren 44.18 artikulua haur eta gazteriaren arloko politikaren eskumen eksklusiboak ematen dizkio Nafarroako Foru Komunitateari. Eskumen horrek legitimatzen du gure komunitatearen barnean nerabezaroaren eta gazteriaren arloan interesekoa den araudia garatzea.

Gazteriari buruzko apirilaren 1eko 11/2011 Foru Legea onartu zenetik izandako hainbat aldaketak sortutako erronken ondorioz, arau horretan ezarritako helburuak eta ekintzak berriz aztertu behar dira. Halaber, aldaketa horiek direla-eta, abian jarri behar dira estrategia berritzaile batzuk, egungo testuinguru sozioekonomikoarekin bat etorriko direnak. Gazteriaren arloko administrazio egiturari dagokionez, aipatzekoa da ezen 1991. urteko dugula Nafarroan gazteriaren arloko politika publikoak lideratzeaz arduratzen den erakunde autonomo bat. Horrez gain, 2007an hain zuzen ere, Nafarroako Gazteriaren Institutua sortu zen, eta eskumen espezifikoak izan zituen arlo honetan 2012. urtera arte. Ondoren, 2019an, berreskuratu egin zen azaroaren 15eko 327/2019 Foru Dekretuari esker, haren bidez sortu baitzen Nafarroako Gazteriaren Institutua erakunde autonomoa. Era berean, apirilaren 18ko 110/1986 Foru Dekretuaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Gazteriaren Kontseilua sortu zen. Hala, mekanismo baten oinarriak ezarri ziren, gazteek modu aske, eraginkor eta anitzean parte hartzeko aukera izateko. Hori da Nafarroako Gazteriaren Foroaren oinarri, zeina lege honetan sortzen baita.

Halaber, hori da arrazoi nagusia gazteriaren arloko politikak etengabe berrikusteko. Berrikuspena egitean, erabaki bat hartzen da, egungo gazteek zein etorkizunekoek dituzten egoera eta abagune berrietan positiboki eragin ahal izateko ezinbestekoa.

Horrez gain, Europar Batasunaren Gazteria Estrategiak (2019-2027) nabarmendu du garrantzitsua dela politika publikoak garatzea gazteek beren bizitzaren agintea izan dezaten ahalbidetzeko. Hala, bereziki garrantzitsua izanen da gazteen eskubide zibikoak legitimatu eta sustatuko dituen politika. Halaber, Nazio Batuen Sistemak, bere ibilbide luzean eta 2030 Gazteria Estrategia baliatuta, botere publikoek jarraitu beharreko bidea ezarri du, gazteriaren aldeko politikak garatzean: ahalduntzea eta parte-hartzea, garapen jasangarria, giza eskubideak eta inklusioa. Europako Kontseiluak, halaber, Ministroen Batzordearen eta haren kontsulta organoen ebazpen eta gomendio askoren bidez, esparru baliotsu bat osatu du gazteriaren arloko kalitate oneko politikak sortzeko eta estandar zorrotzak izateko gazteen parte-hartze zibikoari eta erantzukidetasun publikoari dagokienez.

Eremu zehatzago batean, Gazteendako Informazio eta Aholkularitzako Europako Agentziak (ERYICA) defendatzen du sustatu dadila gazteek behar duten eta interesatzen zaien informaziorako sarbidea izan dezaten. Hala, aitortzen da ezen gazteendako informaziorako sarbidea oinarritzko tresna bat dela gazteen garapen pertsonal eta sozialerako, eta horrek, azkenean, sustatu behar duela gazteen benetako parte-hartzea eta ahalduntzea. Hain zuzen ere, demokraziarekiko, giza eskubideekiko eta oinarritzko askatasunekiko errespetuak berekin dakar gazte guztiak eskubidea izan dezaten informazio osoa, egiazkoa, ulertteraza eta fidagarria eskuratzeko, eta informazioak arlo horri buruzko beharrei erantzuteko.

Subsidiarotasun eta hurbiltasun irizpide orokorrekin bat, tokiko eta eskualdeko botereen erantzukizuna da transakzio espazioetan adostutako xede legitimoak gauzatzea.

Azaldutakoaren arabera, foru lege honen helburu nagusia da gazteriaren arloko politikak egokitzetea errealitate berriei eta gazteek berehala aurre egin beharko dieten errealitateei. Hala, lortu nahi da, gazteen aldeko ekintza eta ekimenak abian jartzean eraginkortasun handiagoa izatea, gazteek prestakuntza, enplegu, emantzipazio, osasun, ongizate emozional, genero berdintasun eta planetarekiko ingurumen konpromisoari dagozkion hainbat erronkari aurre egitea, bat eginez kasuan kasuan dauden sektoreko legediekin.

Egungo baldintza sozial eta materialak, egun daudenak zein lege honen bidez etorkizunerako prestatzen ari direnak, erronka jotzen diote Nafarroako Foru Komunitateari. Erronka horren ardatza da esparru bat bermatzea, gazteengan sustatuko dituen sormena, ekintzaitza, hezkuntza emozionala, solidaritatea, parte-hartzea eta ingurumenarekiko errespetua. Hori dela eta, ezinbestekoa da gazteei bideratutako politiken oinarri izatea hainbat balio, jarrera eta gaitasun, ahalbidetuko dutenak herritarren sektore honen aldeko baldintzak garatzea.

Beraz, gure gizartearen betebeharrerako bat da ahalik eta baldintza egokienak sortzea gazteek bizitza bete izateko aukera izan dezaten. Ondorioz, saiatu beharra dago gazteek beren indar pertsonal, sozial eta profesionala garatzeko aukera izan dezaten. Helburu hori lortzeko, ezinbestekoa da gazteen eskura mota guztietako baliabideak jartzea, eta baliabide horiek proposatzean, gartzean eta exekutatzean aktiboki sartzea. Hala, sustatuko da gazteak benetan eta efektiboki ahaldundu daitezen haiei eragiten dieten politiketan. Gazteendako baldintza on horiek ezartzea izanen da lege honetan jasotako legezko xedapenen esperotako ondorioa. Neurri horiei esker, gazteen

testuinguruak hobera eginen du, eta, ondorioz, haiek ere lagunduko dute etorkizuneko gizarte eraikitzen, irekiagoa eta toleranteagoa izan dadin, inguruarekin eta ingurumenarekin errespetu handiago izanen duena, justuagoa, berdinzaleagoa, inklusiboagoa eta solidarioagoa.

Helburu hori betetzeko, zenbait eremu konplexuri heldu beharko zaie: lan baldintzak, langabezia, etxebizitza emantzipazioa eta zenbait eskubide aitortzea (baldintza material duinak, benetako emantzipazioa, sexualitateaz gozatzea, politikan parte hartzea, etab.). Eremu horiek eragin handia dute gazteengan, eta politika publikoek horien gainean egin behar dute lan. Halaber, arreta berezia eskaini beharko zaie zaugarritasun interseksionalak pairatzen dituzten gazteei (horien artean generoa, etnia, klase soziala, sexu orientazio edo nortasuna, adina eta desgaitasuna), edozein dela ere haien jaioterria edo gure komunitatera etortzeko arrazoiak. Ezinbestekoa da ulertzea gazteek kolektibo heterogeneoa osatzen dutela, eta haien beharrak eta kezak askotarikoak direla. Hortaz, gazteei laguntzeko politikek eta programek ere askotarikoak izan beharko dute, heterogeneotasun horrekin bat.

Aipatzekoa da, orobat, garrantzitsua dela aurre egitea Nafarroako gizarte pixkanaka zahartzearen erronkari; izan ere, populazio gaztea gero eta askotarikoagoa da. Egoera honetara egokitzeko, eraberritzea ezinbestekoa da, gazteen espektatibak eta aukerak aldatu baitira. Beraz, beharrezkoa da erabakien eremuan txertatzea gazteak, haien eskubideak osorik eta benetan gauzatzen dituztela bermatzeko modu gisa. Horrela, lortuko da gazteek presentzia handiagoa izan dezaten politika publikoetan, eta interes handiagoa izan dezaten eragiten dieten kontu guztiekiko. Horri esker, ekidinen da gazteek haien inguruko munduan eragiteko gaitasuna galtzea.

Horrez gain, landa eremuetako despoblazioa lehen mailako erronka bat da gure komunitatean. Gazteak landa eremutik hiriguneetara emigratzen ari dira, eta horrek Nafarroako bizitasun demografiko, sozial eta ekonomikoa urritzen du. Horregatik, foru lege honek landa eremuarekiko ikuspegi sensitibizatua txertatzen du, gazte ororendako aukera berdintasuna eta baliabideetarako sarbidea bermatzeko, haien bizitokia edozein izanik ere.

Xedapen edukia osatzeko, aintzat hartu dira, manuetako bakoitzean, behar, eraginkortasun, proportzionaltasun, segurtasun juridiko eta gardentasun printzipioak.

Bereziki, azken hamarkadan Nafarroako gizartean eta gizarte globalean izandako aldaketa ekono-

miko, sozial, politiko eta kulturek eragin dute premia hori. Aldaketa horien ondorioz, gazteriaren arloko politika publikoen araudi orokorrak barne hartu behar ditu aurrerapen transnazional eta konparatuak, horien bidez modu errealistagoan eta malguagoan erantzuten ahal baitzaie egungo zein etorkizuneko gazteen eskubide eta interesei. Horren adibide dira Europan berriki eztabaidatu diren belaunaldien arteko elkarrizketari buruzko parameetroak, zeinak arau berri honetan txertatu baitira.

Ahaleginak egin dira testu juridikoa eraginkorra izan dadin, eta, horretarako, elkarren osagarri eta indargarri diren mekanismoen arteko interrelazioa bilatu da. Hala, tresna bakar baten bilakaera eta balizko ahulezia berronkatzea posible da, beste batzuen esku-hartzearen eta protagonismoaren bidez. Horren adibide dira bultzatzeko organoen erakundeen arteko integrazioa.

Segurtasun juridikoa nabaria da, lehendik bazeuden eta ongi funtzionatu duten erakundeak eta esparruak mantentzen baititu, eta gabeziaren bat duten eremuetan hobekuntzak egin baititu. Gainera, testu osoaren segurtasun juridikoa hobetzen du, zehapen-esparru propioa ezartzen baitu. Hala, gazteriaren arloko politiken esparruan arauhauste gisa tipifikatutako jokabideak argiago daude, bai eta horien ondorioak ere.

Gardentasuna funtsezkoa izan da testua osatzeko parte-hartze prozesuan. Hala izan da aurretiko kontsulta publikoa egin zenetik, lehenengo zirriborroak egin aurretik, fase horretan iradokizunak jaso zirenean eta ondorengo entzunaldiko ekarpenei banan-banan erantzun zaienean aurreproiektu publiko batekin, eta kasu bakoitzean ekarpenak zergatik baietsi edo ezetsi diren justifikatuta. Legea bera koherentea da kide anitzeko jarraipen mekanismoak sartzen dituelako; izan ere, horien bidez erabakiak hartzean gardentasunaren kultura sustatuko dute, eta ez dira kenduko eztabaidarako guneak, baizik eta areagotu.

Azkenik, lege honen bidez gizarte osoa interperlatu nahi da, gazteen aukerak eta ongizatea hobetzearen alde egiteko. Hori da baldintza justuagoak eta berdinzaleagoak lortze aldera oinarriak jartzeko modu bakarra. Baldintza horiei esker, gizarte oparoagoa eta ekitatiboagoa bultzatuko da, eskubideak gozatu eta gauzatzeko egokia, guztiondako etorkizun hobea bermatzeko modu gisa.

Egiturari dagokionez, foru lege honek atariko titulu bat eta bost titulu ditu, osotara laurogeita hamar artikuluz osatutakoak; halaber, xedapen gehigarri bat, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen ditu. Titulu bakoitzak gazteekin lotutako alderdi espezifikoak lantzen ditu:

politika transbertsaletatik hasi eta gazteen parte-hartzea eta boluntariorzara helduta. Horrez gain, Nafarroako Foru Komunitatean, gazteriaren eremuan, administrazio antolaketaarako eta finantza araubiderako esparru argi bat ezartzen du.

ATARIKO TITULUA **Xedapen orokorrak**

1. artikulua. Xedea.

Foru lege honek xede du arau eta eskumen eremua ezartzea Nafarroako Foru Komunitateko gazteriaren arloko politketan.

2. artikulua. Helburua.

Foru lege honek helburu du gazteek behar den autonomia izan dezaten bizi proiektu betea gauzatzeko, eta hori oinarrituta egon dadin norberak erabakitzeko askatasunean, aukera berdintasunean eta eskubideak benetan gauzatzean. Hala, legeak lortu nahi du gazteak konprometituak eta ardurasuak izan daitezen, eta aktiboki parte har dezaten –Nafarroako Foru Komunitateko eta Komunitatetik abiatuta– garapen politikoan, sozialean, ekonomikoan, kulturean eta ingurumenekoan.

3. artikulua. Aplikazio eremu objektiboa.

1. Lege honen aplikazio eremu objektiboak barne hartzen du botere publikoek gauzatzeko gazteei bereziki bideratutako esku-hartzeak, gazteriaren arloko politika publiko gisa.

2. Hain zuzen, Nafarroako gazteriaren arloko politika osatzen duten esku-hartzeak barne hartzen dute honako hauek ezartzea: zerbitzu publikoak, sustapen neurriak, sektoreko erregulazio arauak eta hainbat subjektu publiko eta pribatuen jarduketari buruzko kontrol eta ikuskapen jarduerak, sektore plangintza publikoen neurriak eta gazteei modu berezitan bideratutako beste edozein ahal publiko. Horren barnean daude, zehazki:

a) Nafarroako Foru Komunitatean gazteriaren arloan eskumenak dituzten administrazio publikoek garatutako jarduketak.

b) Nafarroako Foru Komunitatean pertsona fisiko edo juridikoek, publiko edo pribatuak, eginiko jarduerak eta zerbitzuak, baldin eta gazteriaren arloko politika publikoen eremuari badagozkio edo horiek lotura estua badute.

c) Gazteen eta gazte erakundearen garapena sustatzea, edozein dela ere haien izaera juridikoa, baldin eta Nafarroako Foru Komunitatean egiazki jarduten badira eta haien jarduketa eremua bertan badago.

4. artikulua. Aplikazio eremu subjektiboa.

1. Foru lege honek ezartzen du Nafarroan gazteriaren sektore publikoaren oinarritutako antolaketa instituzionala, espezializatutako aktore publiko gisa.

2. Foru lege honen ondorioetarako, gaztetzat hartuko dira 12 eta 30 urte bitartekoak, biak barne, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean bizi edo jardueraren bat gauzatzen dutenak, haien administrazio egoera edozein dela ere.

3. Gaztaroan, partez, adingabetasun osoa dugu; zehazki, haurtzaroan eta nerabeztaroen. Hala, adingabeen interes gorena da lehentasuna, bat etorritik sektoreko legeriarekin.

4. Politika publikoak gazteen garapenerako etape-tako bakoitzari egokitutako zaizkie. Salbuespenez, beste adin tarte batzuei ere aplikatzen ahalko zaizkie neurriak, baldin eta lege honek hala justifikatzen badu. Edonola ere, horrek ez du aldatzen bigarren apartatuan jasotako gazte kontzeptuaren definizio orokorra.

5. artikulua. Printzipio orokorrak.

Gazteriaren arloko Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoen jarduketak honako printzipio orokor hauek izanen ditu:

1. Berdintasuna; oinarritutako eskubideak eta askatasun publikoak benetan gauzatzeko oztopoak ezabatzea bideratutako da jardueraren oro. Berezik, eta gutxienez:

a) Oinarri izanik izaera erabat garatzea, bidezko baldintzekin eta ongizate emozional eta materialarekin.

b) Oinarri izanik giza eskubideetan funtsa duen eta indarkeriaren, pobrezia eta bazterkeriaren aurkako ikuspegia.

c) Oinarri izanik dibertsitatean ekitatea gauzatzeko, eta diskriminazioaren aurka lan eginik, dela gizonen eta emakumeen artekoa, dela oinarri dituen arrazoi sozioekonomikoak, bizitokikoak, etnikoak, identitatekoak edo beste edozein motatakoak, bai eta desgaitasuna, adina, sinisteak eta adierazpen moduak, bizilekua edo jatorria, edo bestelako egoera pertsonal edo sozial ere.

d) Oinarri izanik aitortzea kulturartekotasunak ematen digun aberastasuna, eta jaioterria atzerrian dutenek guztion garapenerako egiten duten ekarpena. Eta lurralde aniztasunaren aberastasuna aitortzea, eleaniztasuna aintzat hartuta eta euskara berezko hizkuntza ofizial gisa hartuta, indarrean dagoen lege esparruarekin bat.

2. Parte-hartzea; garapen kolektiborako eragile estrategiko gisa aitortzea gazteak. Bereziki, eta gutxienez:

a) Oinarri izanik zuzenbide estatuan eta balio demokratikoetan zibikoki integratzea.

b) Oinarri izanik tokiko ekintza guztietarako ikuspegi globala izatea.

c) Oinarri izanik erabat aitortzea gazte izan bitartean hiritar oso direla.

d) Oinarri izanik elkarrizketa zibilaren esparrua eta gizarte zibil antolatua eta gazte mugimenduaren legitimitate handia.

e) Oinarri izanik gazteen parte-hartzearen askatasuna, eraginkortasuna eta aniztasuna, horrek dituen alderdi guztietan.

f) Oinarri izanik aitortzea gazteen parte-hartzea eta gazteak gizarte, ekonomia eta kultura garapenerako gaikuntza aitortzea, gizartearen eraldaketaren, transformazioaren eta garapenaren eragile gisa.

3. Esku-hartze publikoaren osotasuna, gazteen bideratutako ikuspegi espezializatuak eta zeharkakoak konbinatuta. Bereziki, eta gutxienez:

a) Oinarri izanik lanaren profesionalizazio tekniko egitea gazteekin, sektorea kualifikatzea eta esku-hartze positibo zuzenak espezializatzea.

b) Oinarri izanik koordinazioa, lankidetzeta eta elkarlana, bai gazteriaren arloko eskumenak dituen departamentuaren eta gazteriaren arloko politikak zeharka lantzen dituzten beste departamentu sektorialen artekoa, bai eta administrazioko mailen artekoa.

c) Oinarri izanik politika publiko guztietan integratzea gazteen ikuspegia eta belaunaldiarteko ikuspegia.

d) Oinarri izanik ebidentzietan oinarritutako ikuspegia, zientzia diagnostikoen, plangintza parte-hartzailearen eta eragin objektiboko ebaluazioen bidez.

4. Erantzukidetasun publikoa; gazteen belaunaldi bakoitzaren eskubideak bermatzeko, gizartearen betebeharrak gisa hartzea gazteak bizitza demokratikoan erabat txertatzea. Bereziki, eta gutxienez:

a) Oinarri izanik esku-hartzeetako bakoitza hurbila izatea, deszentralizazioaren eta deskonzentrazioaren bidez, lurralde arloan zein arlo funtzionalean, administrazio publiko guztietan, eta gazteenganako hurbiltasuna bermatzea, desoreka geografikoen gainetik.

b) Oinarri izanik ezarritako helburuetarako bideratutako baliabideak kuantitatiboki nahikoak eta kualitatiboki egokiak izatea.

c) Oinarri izanik irismen unibertsaleko ikuspegiak, non gazteriaren arloko politikak ahal dela lurraldeko gazte guztien alde eginen baitute, eta arreta berezia eskainiko baitiete hurbiltasunari, dibertsitateari eta lurralde kohesioari.

6. artikulua. Gazteen eskubideak eta betebeharrak.

1. Gazteek gainerako herritarrek dituzten eskubide eta betebeharrak berdinak dituzte, eta, horiez gain, nazioarteko tratatuetan eta gainerako ordenamendu juridikoan gazteei zehazki aitortutako eskubide eta betebeharrak.

2. Lege honek eskubide horietarako sarbidea errazteko mekanismoak ezartzen ditu, eta arreta handia jartzen du gazteek gazteak izateagatik pairatzen ahal dituzten zaurgarritasunetan.

3. Botere publikoek gazteen eskubideak modu espezializatuan babesteko mekanismoak garatu beharko dituzte, ondoren posible izan dadin ebidentzietan oinarritutako diagnostikoa egitea, estandar progresibo exijenteagoak modu integralean sustatzea, bai eta urratze espezifikoak salatzea eta haien jarraipena egitea. Hain zuzen, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak hauek sustatuko ditu:

a) Gazteengan eragina duten politikak lantzen dituzten departamentuen plangintza estrategiko osoan eskubideen ikuspegia barne hartzea; bereziki Nafarroako gazte guztien trebakuntza zibikoari dagokionez, haien eskubideak ezagutu, gauzatu eta defendatu ditzaten.

b) Gazteen eskubideen urratze espezifikoak salatzeke eta haien jarraipena egiteko baliabide espezializatuak antolatzea, erakundearen arteko akordio bidez Nafarroako Justizia Administrazioarekin, arartekoekin, gazte erakundeekin eta bestelako gako eragile batzuekin, zeinek laguntzen baitute gazteendako babes eskuragarria eta eragingarria lortzen.

4. Botere publikoek jarraian adierazitako printzipioen arabera interpretatu beharko dituzte gazteen eskubideak, gainerako ordenamendu juridikoan ezarritakoarekin batera:

a) Adina dela-eta adingabekoei dagokien babesa jasotzen dutenen interes gorenari.

b) Nazionalitatea ez da oztopo foru lege honetan jasotako eskubide subjektibo espezifikoetako bat bera ere gauzatzeko, eta ezin da diskriminazio irizpide gisa erabili Espainian atzerriko gazteei aitortutako bestelako edozein eskubide gauzatzean.

c) Adin nagusitasun osoak jarduteko gaitasun osoa berresten du, baina ez du eragozten haur eta nerabeek beren eskubideak gauzatzeko gaitasun partziala eta graduagarria izatea, autonomia eta ez soilik beste pertsona batzuen laguntzarekin osatua. Gaitasuna osatzeko, hainbat modutako onespren, berariazko adostasun edo ordezkapen ematen ahal-ko dira, kasuaren arabera; gaitasun faltari buruzko interpretazio murriztua eginen da kasu guztietan.

d) Diskriminazioa debekatzen duen arrazoi espezifikotako bat gazteen adina da; hala, gaztea izate-agatik edozein tratu desberdintasun justifikatuta egon beharko da, gazteen eskubide eta interesak babestea oinarri izanik.

5. Foru lege honetan gazteei zuzendutako eskubide, prestazio eta zerbitzuen arloan jasotako aurreikuspenek ez diete kalterik eginen aplikatzekoa den araudi orokor eta sektorialean ezarritako betebeharrak, baldintza eta araubideari.

I. TITULUA

Gazteriaren arloko eskumenak eta administrazio antolaera

7. artikulua. Gazteriaren arloan eskumenak dituzten administrazio publikoak.

1. Nafarroako administrazio publiko guztiek dituzte eskumen berekiak gazteriaren arloko politikan.

2. Hain zuzen ere, foru lege honek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Nafarroako toki entitateei gazteriaren arloan esleitutako politiken eskumen espezifikak eta zeharkakoak arautzen ditu.

8. artikulua. Gazteriaren arloko eskumen motak.

1. Gazteriaren arloko eskumenak ahalmen publikoak dira, zeinak herritar gazteekin zuzenean eta berariaz lotuta dauden eremu materialetan gauzatzen baitira.

2. Hori guztia galarazi gabe, edozein jarduketa publiko izaten ahal da interesgarria gazteendako. Ondorioz, gazteek parte hartzen ahal-ko dute edozein gai edo botere publikori dagokienez, gazteriaren arloko eskumenen mugaketa teknikoa gorabehera.

9. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eskumenak gazteriaren arloan.

Gazteriaren arloan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak honako eskumen hauek ditu:

a) Gazteen eskubideak sustatzea eta babestea Nafarroako Foru Komunitatean.

b) Gazteriaren arloko politiken garapenerako jarraibideak eta jarraibide orokorrak ezartzea Nafarroako Foru Komunitatean.

c) Koordinazioz eta elkarlanean jokatzeko administrazio publikoekin behar den lurralde mailetan, baita bestelako entitate publiko eta pribatuekin ere, gazteriaren arloko politikak garatzeko.

d) Gazteen irudi positibo eta kolektiboaren alde egitea, eta estereotipo sexistak edo bestelako edozein estereotipo negatibo ezabatzea lan egitea.

10. artikulua. Gazteriaren arloko eskumena duen departamentuaren eskumenak.

Gazteriaren arloko eskumena duen departamentuari dagokio gazteen eskubideak babestea, autonomia lor dezaten politikaren, gizartearen, ekonomia- eta kulturaren garapenean parte hartuz modu librean, eraginkorrean eta emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasuna bermatuta. Horretarako, departamentu horrek honako eskumen hauek izanen ditu:

a) Gazteriaren arloko politika integral eta berdintasunezkoak planifikatzea.

b) Gazteriaren arloko berariazko politikak kudeatzea eta zeharkako politikak koordinatzea.

c) Gazteriaren arloko profesionalen zainketa eta igoera, eta horien aitortza eta prestakuntza sustatzea, lanbide kualifikazioei buruzko araudi indardunari jarraikiz eta hezkuntza ez-formalaren bitartez.

d) Gazteekin eta horiek ordezkatzeko dituzten taldeekin elkarriketa izatea, eta kontsulta prozesuak ezarri ahal izatea gazteriarendako garrantzitsutzat jotzen diren gaietan.

e) Gazteriaren arloan kontsulta eta koordinazio kide anitzeko organoak sustatzea eta koordinatzea.

f) Foru lege honetan eta gainerako ordenamendu juridikoan esleitutako gainerako eskumenak.

g) Foru lege honetan ageri diren jarduketaren garapenerako ezarritako baliabide, zerbitzu eta prozeduren eraginkortasuna eta kalitatea ebaluatzeko sistema bat ezartzea.

h) Gazteriaren arloko instalazioei eta haien ekipamenduei, zerbitzuei eta jarduerari dagokien ikuskatzea eta zehapen-ahala gauzatzeko.

11. artikulua. Nafarroako Gazteriaren Institutua.

1. Gazteriaren arloan eskumena duen departamentuari atxikitako erakunde autonomo bat da Nafarroako Gazteriaren Institutua, eta helburu du funtzionalki espezializatzea gazteriaren arloko politika zuzen eta positiboak garatzeko. Egitura,

funtzioak eta eskumenak Institutuaren estatutuetan daude jasota.

2. Nafarroako Gazteriaren Institutuaren estatutuetan ezarritako funtzioak oztopatu gabe, erakundeak gutxienez Nafarroako Gazteriaren Behatokia eratuko du, azterketa eta prospektiba organo gisa. Organoak bermatuko du esku-hartze publikoak oinarri zientifikoa eta eguneratutako diagnostikoak izanen dituela.

12. artikulua. Kide anitzeko kontsulta eta koordinazio organoak.

1. Artikulu honetan jasotako kide anitzeko kontsulta eta koordinazio organoek izanen dute Nafarroako Foru Komunitateko gazteriaren arloko politiketan aholkua eskaintzeko eta koherentzia bermatzeko ardura. Hauek dira gazteriaren arloan Nafarroako Gazteriaren Institutuari atxikitako kide anitzeko kontsulta organoak:

a) Gazteriaren Departamentuarterko Batzordea. Nafarroako Gobernuko departamentuetako ordezkariak osatzen dute; xede izanen du gazteei bideratutako zeharkako politikak koordinatzea, sustatzea eta horietan lankidetzan aritzea, eta arreta berezia jarriko da gazteei eragiten dieten beste arlo batzuetako esku-hartze sektorialen eraginkortasuna bultzatzeko.

b) Gazteriaren Lurraldearterko Batzordea. Nafarroako toki administrazioetako ordezkariak osatzen dute, bai eta Nafarroako Gazteriaren Institutuko ordezkariak eta gazteriaren arloko politikak eta administrazio koordinazioa hainbat arlotan integratzea erraztuko duten bestelako eragileek ere.

c) Nafarroako Gazteendako Informazio eta Aholku Zerbitzuen Sarea koordinatzeko Batzordea. Nafarroako Gazteriaren Institutuko ordezkariak eta toki entitateen, elkarten edo unibertsitateen mendeko informazio eta aholku zerbitzuetako ordezkariak osatzen dute, eta xede izanen du gazteendako informazio zerbitzuak eta baliabideak sustatzea, hobetzea eta koordinatzea.

d) Gazteriaren Erakundeen arteko Kontseilua. Gazteriaren arloko politika integralen eztabaidarako eta kontsultarako organo sektorial orokorra da. Gutxienez, honako hauek osatu beharko dute: Nafarroako Gazteriaren Foroaren biez antolatutako gazteak, gazte ikasleak, Nafarroako sindikatu eta enpresaburu esanguratsuenen gizarte eragileak, Nafarroako Parlamentuko taldeak eta artikulu honetan jasotako batzordeetako ordezkariak.

e) Gazteriari buruzko Zientzia Batzordea. Gazteriaren ezagutzaren arloan eginiko ekarpena dela-eta entzute handia duten adituek osatuko dute, barne hartuta ikerketa instituzioak eta profesio-

sionalen sareak, eta xede izanen du sektoreari buruzko ezagutza indartzea eta hobetzea, bai eta ebidentzietan oinarritutako politika publikoen diseinua indartzea ere.

f) Koordinazio teknikoko sektoreko beste batzorde batzuk, Nafarroako Gazteriaren Institutuak definitutako arloetan, bere plangintza estrategikorekin bat.

2. Gazteriaren arloko eskumenak dituen departamentuak erregelamendu bidez ezarriko ditu foru lege honetan jasotako kide anitzeko organoen funtzioak, osaera eta funtzionamendurako arauak. Horiek eratzean, ordezkariak hautatzean parekotasun irizpideak betetzearen alde egingen da.

13. artikulua. Gazteriaren arloan toki entitateek dituzten eskumenak.

1. Nafarroako toki entitateek, beren lurralde eskumenean barnean, gazteriaren arloan eskumen hauek izanen dituzte:

a) Beren lurralde eremuan gazteriaren arloko plan eta politikak prestatzeko bultzada ematea.

b) Gazteriaren arloan, lankidetzan aritzea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekin, hainbat bide baliatuta eta Gazteriaren Lurraldearterko Batzordearen baitan.

c) Beren lurralde eremuan gazteendako jarduerak eta programak garatzea eta koordinatzea.

d) Gazteendako informazio, orientazio, aholku eta laguntza zerbitzuak bultzatzea, herri bakoitzeko beharren arabera.

e) Gazteendako instalazio, ekipamendu eta espazio publikoak sortu eta mantentze-lanak egin daitezela sustatzea.

f) Gazteriaren arloko lanak egiten dituzten toki entitateetako teknikarien etengabeko prestakuntza bultzatzea.

g) Gazteek parte har dezaten sustatzea, eta horretarako, gazte erakundeak eta talde informalak laguntzea eta gazteen tokiko kontseiluak aitortzea, hori eskatzen duten gazteak dauden herrietan. Hala, atxikipen libre, aniztasun, independentzia funtzional, askatasun eta eraginkortasun printzipioak izanen dituzte oinarri.

h) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eskuordetutako gazteriaren arloko eskumena kudeatzea, bete beharrez tokiko araubidearen arloan indarrean dagoen legedia, baita foru lege hau garatzeko agindutako beste edozein eskumen ere.

2. Nafarroako Gobernuak behar diren mekanismoak antolatzen ahalko ditu aldizkako laguntzak emateko toki entitateei, bermatze aldera gazteriaren arloko tokiko politikak garatzean nahikoa finantzaketa dutela.

3. Gazteriaren arloko eskumena duen departamentuak Nafarroako toki entitateei lagundu eta aholku emanen die gazteriaren arloko tokiko politikak bultzatu eta sustatzeko.

II. TITULUA Gazteen parte-hartzea

I. KAPITULUA Xedapen orokorrak

14. artikulua. Definizioa.

1. Parte hartzea gazteen eskubide bat da, modu espezializatuan parte hartzeko, adina dela-eta, gizartean eta botere publikoetan erabakiak hartzeko prozesuetan.

2. Gazteriaren arloko politika publikoaren muina osatzen duen eskubide zibiko bat da; izan ere, eskatzen du gazteak garapen kolektiborako eragile estrategiko gisa aitortzea, bai eta egun zein etorkizunean demokrazia indartzeko eta hari jarraipena emateko berme gisa ere. Gainerako eskubide guztiei eta sektore guztietan eragina izateko gaitasunari eragiten die.

15. artikulua. Gazteek parte hartzeko bideak.

1. Foru lege honetan jasotako gazteriaren kontseilu eta foroak dira parte hartzeko bide nagusia; izan ere, beste bide publiko eta pribatu batzuk eta horien aniztasuna hartzen dituzte barne, eta gizartearen eta botere publikoen aurrean ere bestelako bideak legitimatzen dituzte. Edonola ere, ez dira bide bakarrik eta ez dituzte gazteek parte hartzeko beste modu batzuk baztertzeko.

2. Gazteek parte hartzeko bide espezifikoak izanen dira honako hauek:

a) Nafarroako Gazteriaren Foroa; foru eremuan bide nagusia izanen da. Foru lege honek arautuko du, bai eta haren garapenerako arauak ere.

b) Gazteriaren eskualdeko eta tokiko kontseiluak; dagozkien eremuetan bide nagusia izanen dira, eta Nafarroako Gazteriaren Foroan barne hartzen ahalko dira.

c) Gazteen aktibismoa eta boluntariora, sozietate zibila antolatzeko beste modu batzuen bidez, barne hartuta gazte erakundeak.

d) Gazteek parte har dezaten maila anitzeko prozesu eta bideak, hala nola elkarrizketa, Gazteen eta Europar Batasunaren arteko Elkarrizketa eta antzeko beste programa batzuk Nazio Batuen Sistemari, Espazio Iberoamerikarrean edo Europako Kontseiluan.

e) Nafarroan gazteek parte har dezaten organo osagarriak: Nafarroako Gazte Parlamentua, gazteen mahaiak eta antzekoak.

f) Nafarroako Gazteriaren Institutuko barneko aldizkako parte-hartze prozesuak; horien artean, gazteei kontsulta egitea, informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidezko bideak edo aurrekontu parte-hartzaileak egitea.

3. Foru lege honetan ezarritako zehaztasunak eragotzi gabe, Nafarroako administrazio publikoek eta gainerako botere publikoek gazteendako espezializatzen ahalko dituzte Nafarroan parte-hartze demokratikoaren eremuan indarreko legeriak jasotako parte hartzeko modalitate eta bideak. Horren barnean egonen dira, gutxienez, deliberazio prozesuak eta kontsultak, horien modalitate guztietan.

Parte hartzeko bide horien ordezkaritza organoen osieran gizonen eta emakumeen kopurua orokortu izanen da.

16. artikulua. Gazteen parte-hartzea sustatzea.

1. Botere publikoen eginkizuna izanen da parte hartzeko askotariko bide libre eta eraginkorrek aitortzea eta erraztea, parte hartu nahi duten gazte guztien parte-hartze indibiduala eta kolektiboa ahalbidetzeko, zilegi den edozein jarduketaren bidez.

2. Gazteek parte har dezaten hainbat baldintza sustatu behar dira, gazteek parte hartzeko aukera dutela jakin dezaten, parte hartu nahi izan dezaten eta ahal izan dezaten. Horretarako, botere publikoek honako hauek sustatu beharko dituzte:

a) Parte hartzearen aldeko heziketa eta esku-ragarri dauden parte hartzeko bideak ahalik eta gehien zabaltzea; bermatu beharko da hezkuntza sistemak eta hezkuntza ez-formalak orokortu dituzaten hiritartasun aktiboa gauzatzeko oinarriko kompetentzia zibiko eta sozialak.

b) Sentsibilizazio demokratikoa, ordenamendu juridikoaren balio nagusiak eta komunitate konpromiso etikoa, oinarri izanik hezkuntza sistemari eta tokiko inguruneetan eguneroko esperientziak duten garrantzia, baita ere gazteek duten papera garrantzitsua garapen jasangarri orokorrean.

c) Gazte erakundeen gaitasun tekniko eta finantzarioa, bai eta foru lege honetan jasotako gainerako alderdiei dagokiena, agindutako funtzio publikoak bitarteko egoki eta nahikoen bidez gauzatzeko.

d) Agintari politikoen eta gazteak ordezkatzeko bideen artean kontuak ematea, eginiko proposamenei buruzko elkarrizketa arrazoituaren bidez.

17. artikulua. Gazte boluntariotza.

1. Gazteek boluntariotza egitea gizartean parte hartzeko modu aktibo, libre, solidario, altruista eta arduratsua da. Haren bidez, gazteak interes orokorreko jarduera edo zerbitzu solidario bat gauzatzeko elkarlanean aritzen dira, Nafarroan boluntariotza arautzen duen foru araudian ezarritako baldintzekin bat.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak sustatuko du Nafarroako gazteek parte har dezaten boluntariotza ekintzetan, bat etorritik arlo hori erregulatzen duen araudian ezarritakoarekin. Arlo horretan eskumenak dituzten departamentuek honako neurri hauek hartuko dituzte, indarrean dagoen araudiarekin bat:

a) Gazteek boluntariotza eta komunitate lana egin dezaten babestea eta sustatzea.

b) Gazte erakundeek eta gazteek beraiek boluntariotza ekintzetan egiten duten ekarpena aitortzea.

c) Boluntariotzaren kalitate ona bermatuko duten formulak sortzea; besteak beste, boluntarioen eskubideak aitortzeari dagokionez eta haien prestakuntza eta mugikortasuna sustatzeari dagokionez.

d) Gazteei bideratutako kontzientziatzeko eta boluntarioak erakartzeko kanpainak egitea, eta boluntarioen eskaintza eta eskari poltsak sortzea. Horretarako, boluntariotzaren arloan Foru Komunitatean dauden zerbitzu eta baliabideekin lan egingen da.

18. artikulua. Gazteen parte-hartze transakzionala.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak sustatuko du, garapenerako nazioarteko lankidetzaren esparruan, gazteek nazioartean mailan parte hartu dezaten eremu transakzionalen programetan.

2. Gazteria arloko departamentu eskudunak, berariaz diseinatzen dituen programa propioen bidez, parte-hartzea, solidaritatea eta nazioarteko mugikortasuna sustatuko ditu Nafarroako gazteen artean.

1. atala

Gazteen parte-hartzerako erakundeak

19. artikulua. Gazte erakundeen bitartez parte hartzea.

1. Gazteek parte-hartze kolektiboa hauen bidez bideratzen ahalko dute:

a) Gehienbat gazteek osatutako eta haiek zuzendutako elkarteak, barne hartuta gazte elkarteak, ikasle elkarteak edo antzekoak.

b) Gazteen atal, area eta departamentuak, hirugarren sektoreko bestelako gizarte erakunde batzuetan, alderdi politikoetan, sindikatuetan, enpresen eta profesionalen erakundeetan, konfesoietan edo kasuan-kasuan aplikatzeko den legeriaren arabera osatutako antzeko erakundeetan, baldin eta estatutuetan gazteen parte-hartzea autonomia dela jasota badago.

c) Plataformak, federazioak eta aurreko edo zeinetako bigarren zein hirugarren mailako sareak, baldin eta gazteek osatzen badituzte eta gehienbat gazteek zuzentzen badituzte.

d) Ikasleen ordezkari organoak, edozein hezkuntza mailatakoak, baldin eta horietan gazteak jarduten badira, gazteek zuzentzen badituzte eta gehienbat gazteez osatutako kolektiboak ordezkatzeko badituzte.

e) Gazte elkarte informalak, bete beharrez foru lege honetan eta hura garatzeko araudian ezarritako irizpideak.

2. Halaber, gazteriaren arloko sektoreko entitateak dira, nahiz eta berariaz gazte entitateak ez izan, espezializatuta daudenak gazteriaren arloko politikaren eremuetan zerbitzuak ematean, batez ere hezkuntza ez-formalaren bidez. Administrazioak aitortzen ahalko ditu foru lege hau garatzen duten erregulazioen bidez, horrek galarazi gabe ordezkari-tza duten gazte erakundeen legitimotasuna.

20. artikulua. Asoziazionismoa eta gazte erakundeak sustatzea.

1. Nafarroako administrazio publikoek hainbat mekanismo ezarriko dituzte, gazte erakunde berriak sortzea sustatze aldera, bai eta dagoeneko daudenak indartze aldera. Hala, handitu nahi da gazteek gizartean eta gai publikoetan duten parte-hartzearen maila.

2. Gazteriaren arloko departamentu eskudunak gazte erakundeei emanen die behar duten babesa erakundea eratzeko erraztasunak izan ditzaten, aholkularitza zerbitzuen bidez eta horretarako

behar den administrazio kudeaketa sinplifikatuz eta bizkortuz, aplikatu beharreko araudiaren araber.

3. Nafarroako administrazio publikoak aldizkako dirulaguntza deialdiak egiten ahaleginduko dira, gazte erakundeak babesteko, egiten dituzten eta interesekotzat jotzen diren jardueretan laguntzeko, eta entitate horiek osatzen dituztenen prestakuntza sustatzeko.

21. artikulua. Gazte erakundeen ordezkagarritasuna.

Nafarroan gazteek parte har dezaten sortzen diren tresnak eta, bereziki, parte hartzeko bide nagusiek gazte erakundeen ordezkaritza izan beharko dute, haztatuta horietan modu aktiboan parte hartzen duten gazteen kopuru efektiboa.

22. artikulua. Gazte talde informalak.

1. Gazte talde informalak nortasun juridikorik gabeko kolektiboak dira, gazteek osatutakoak, eta epe laburrean baterako interes edo xede legitimoak dituztenak.

2. Gazte talde ez-formalak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioen eta toki administrazioen solaskide izanzen dira, gazteriaren arloko politikak planifikatzeko, prestatzeko eta ezartzeko prozesuetan.

3. Toki administrazioek, beren eskumenen eremuan, aintzat hartu beharko dituzte gazte talde ez-formalek proposatutako ekimenak.

4. Aurreko apartatuetan adierazitako gazte talde ez-formalek beren funtzionamendua finkatu nahi izanez gero, botere publikoek babesa eta laguntza eman beharko diete erakundea erraztasunez babesteko.

23. artikulua. Gazte erakundeen errolda.

Gazteriaren arloko departamentu eskudunak kudeatuko du gazte erakundeen errolda, Nafarroako Gazteriaren Foroarekin lankidetzan. Errolda horretan izena ematea baldintza gisa ezartzen ahalko da zenbait jarduera, zerbitzu publiko edo sustapen neurrietarako sarbidea izateko.

2. atala

Gazteek parte hartzeko bide osagarriak

24. artikulua. Parte-hartze demokratikoa, espezializatutako bide osagarrien bidez.

Atal honetan ezarritako parte-hartze bideak gazteen adina dela-eta espezializatutako tresna osagarri bat dira, eta parte-hartze demokratikoaren arloan indarrean dagoen foru legeriaren araber garatuko dira.

25. artikulua. Gazteekiko elkarriketa.

Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek gazteekin hartu-emana izanzen dute Nafarroako Gazteriaren Foroaren bidez, eskualdeko eta tokiko gazteriaren kontseiluekin –halakorik balego– eta gazte erakunde, kolektibo, plataforma edo taldeekin, gazteriaren arloko politika publikoak garatzeko esanguratsuak diren arloei dagokienez.

26. artikulua. Gazteei kontsulta egitea.

1. Kontsultak parte hartzeko tresnak dira, eta ahalbidetzen dute gazteek babestu dezaten edo aurka egin diezaieten agintari publikoek eginiko zenbait proposamenei edo gazte erakundeen beraien zenbait proposamenei. Orokorrak izaten ahal dira, Nafarroako Foru Komunitatean bizi diren gazte guztiei zuzenduak badira, edo espezifikoa, lurralde zehatz bati edo kolektibo zehatzei mugatzen bazaizkio.

2. Gazteriaren arloko eskumenak dituen departamentuak edo Nafarroako Gazteriaren Foroak proposatuta egingen zaizkie kontsultak gazteei.

3. Nafarroan parte-hartze demokratikoari buruz indarrean dagoen legerian xedatutakoarekin bat egingen dira, eta adinaren arabera ere espezializatzen ahalko dira.

4. Agintari eskudunek, bakoitzak bere lurralde eremuan, tokiko kontsultak egiten ahalko dituzte biztanle gazteen artean.

27. artikulua. Nafarroako Gazte Parlamentua.

1. Nafarroako Gazte Parlamentua parte hartzeko tresna bat da, Nafarroako Parlamentuari atxikitakoa eta gazteek osatutakoa; ahal dela, oreka egonen da demografiari, generoari, adin tarteei eta lurralde jatorriari dagokienez.

2. Nafarroako Parlamentuak funtzionamendurako eta antolamendurako araubidea ezarriko du, Nafarroako Gazteriaren Foroarekin eta Nafarroako Gazteriaren Institutuarekin lankidetzan.

28. artikulua. Gazteen mahaiak.

1. Gazteen mahaiak parte hartzeko tresna iraunkor eta sektorialak dira, Nafarroako administrazio publikoen eta gazteen artean eztabaidatzeko. Bertan, gazteek parte hartzen ahalko dute banaka, nortasun juridikoa duten gazte entitateen bidez edo gazte taldeen bidez.

2. Gazteriaren arloko eskumenak dituen departamentuak gazteen mahaiak osatzen ahalko ditu, Nafarroako Foru Komunitatearen eremuan gazteei eragiten dieten gai zehatzei buruz eztabaidatzeko.

3. Toki administrazioek, beren lurralde eremuan, gazteen mahaiak osatzen ahalko dituzte, gazteei eragiten dieten arlo zehatzei buruz edo herriko gazteriaren arloko politikei buruz eztabaidatzeko.

29. artikulua. Harremanen, informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidez parte hartzea.

1. Gazteekin solas egiteko, Nafarroako administrazio publikoek harremanen, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliko dituzte, hartara politika publikoetan zuzeneko parte-hartzerako kanalak osatzeko.

2. Nafarroako administrazio publikoek parte-hartze prozesuetan sartuko dituzte gazteek erabili ohi dituzten tresna digitalak, eta sustatuko dute prozesu demokratikoetan ahalik eta gazte gehienek parte har dezaten.

30. artikulua. Gazteriaren arloko aurrekontu parte-hartzaileak.

1. Administrazioek gazteen parte-hartze prozesuak sustatzen ahalko dituzte gastuaren alderdi jakin batzuk lehenesten laguntzeko asmoz. Prozesu horiek barne hartuko dituzte gazteriaren arloko eskumena duen administrazioaren aurrekontuak, foru mailakoak zein toki mailakoak izan. Administrazio horietako departamentuen zeharkako beste partida batzuk ere barne hartuko dituzte, baldin eta dagozkien aurrekontuetako gastuen egoera orrien aurreproiektuetan horiek jasotzea ezarrita badago.

2. Hain zuzen ere, Nafarroako Gobernuak erregelamenduz garatuko du Foru Komunitateko aurrekontu orokorreari buruzko parte-hartze prozesua, hargatik eragotzi gabe toki administrazioen berezko garapena.

II. KAPITULUA

Gazteriaren kontseiluak eta foroak Nafarroan

1. atala

Nafarroako Gazteriaren Foroa

31. artikulua. Izaera eta xedeak.

1. Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde eremuan, gizartearekiko eta botere publikoekiko gazte erakundeen eta gazteen interesen ordezkari-tza eta eztabaidarako organo nagusia da Nafarroako Gazteriaren Foroa. Ereku horretan, gazteen parte-hartze aske, eraginkor eta pluralerako bide nagusia da.

2. Nafarroako Gazteriaren Foroa zuzenbide publikoko korporazio bat da, elkarte izaerakoa eta oinarri pribatukoa; berezko nortasun juridikoa du,

eta bere xedeak gauzatzeko gaitasun osoa. Zuzenbide pribatuko arauen arabera jardunen du, bat etorri foru lege honetan, haren estatutuetan eta garapenerako bestelako berezko arauetan jasotakoarekin. Edonola ere, esleitu edo eskuordetu zaizkion funtzio publikoak gauzatzean, kasu bakoitzari aplikatzekoak diren zuzenbide publiko-ko arauak aplikatuko ditu.

3. Nafarroako Gazteriaren Foroaren xedea da bideratzea eta sustatzea gazteek parte har dezaten Nafarroako Foru Komunitateko garapen politiko, sozial, ekonomiko eta kulturean, bai eta zaintzea gazteen eskubideak betetzen eta garatzen direla ere.

32. artikulua. Eginkizunak.

Nafarroako Gazteriaren Foroaren berezko eginkizun publikoak dira hauek:

a) Gazteen eskubideei eta interesei buruzko espektatibak eta aldarrikapenak defendatzea eta aditzera ematea, Nafarroako gizartearen aurrean, botere publikoen aurrean eta lurralde eremu handiagoan gazteen parte-hartzerako dauden espazio baliokideen aurrean.

b) Gazteen artean parte-hartzea eta asoziazionismoa sustatzea, eta, horretarako, eskura dituen baliabideekin babes, laguntza eta aholku egokia ematea.

c) Nafarroako Foru Komunitate osoan gazteen eskualdeko eta tokiko kontseiluak sor daitezen sustatzea.

d) Jarduerak sustatzea, bermatze aldera gazte gehiagok indar eta kopuru handiagoz eta berdintasunez parte hartzen dutela interesatzen zaizkien erabaki eta neurrietan.

e) Administrazioak gazteriarekin zerikusia duten gaiak aztertzeke ezartzen dituen kontsulta organoetan parte hartzea, eta interesgarritzat jotzen dituen gainerakoak proposatzea.

f) Botere publikoen eta gazteen arteko solaski-de gisa jardutea, parte-hartzean oinarritua.

g) Nafarroako Gobernuarekin lan egitea gazteriaren arloko politika publikoak prestatzeko, gauzatzeko eta horien jarraipena egiteko.

h) Egoki jotzen den kasuetan, gizarte zibil gaztearen perspektiba oinarri hartuta proiektuei buruzko txostenak ematea gazteei eragiten dieten foru lege aurreproiektuei edo foru dekretuen proiektuei buruz, eta politika publikoek gazteengan duten eragina aztertzeke prozesuak lideratzea.

i) Gazteriaren arloan eskuduna den Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako departamentuak esleitutako eta foru lege honek aitortutako beste edozein eginkizun.

33. artikulua. Osaera, antolaketa eta funtzionamendua.

1. Nafarroako Gazteriaren Foroaren osaera, antolaketa eta funtzionamendua ezarriko dituzte foru dekretu honek eta haren garapenerako arau propioek.

2. Edonola ere, foroaren barne antolaeraren printzipio arautzaileak izanen dira atxikimendu askea, ordezkari-tza parametroen arabera nahitaezko onarpena, prozesuen eta barne demokraziaren autogestioa, ideologia eta antolaketa aniztasuna, giza eskubideekiko errespetua eta integratutako erakundeen ordezkari-tzaren haztapena.

3. Nafarroako Gazteriaren Foroaren deliberazio, erabaki eta gobernantza organoen osaera definituko dira haren barne araudiaren bidez. Edonola ere, horietan egoteko modua izan beharko dute eroldan jasotako gazte erakundeek, eta eskubide osoak izan beharko dituzte Foru Komunitatearen eremuan gazteen ordezkari-tzarako maila zehatz bat lortzen dutenean.

4. Foroaren ekintzen erantzukizuna izanen dute erabaki horiek hartzen dituzten organoek, nahiz eta foroa ez den foru sektore publikoko parte.

2. atala

Gazteriaren eskualdeko eta tokiko kontseiluak

34. artikulua. Izaera eta xedeak.

1. Gazteriaren eskualdeko eta tokiko kontseiluak zuzenbide publikoko korporazioak dira, elkarte izaerakoak, oinarri pribatukoak eta nortasun juridikoa dutenak. Haien ardura da, beren lurralde eremuan, gazte erakundeen eta gazteen ordezkari-tza lanak egitea eskualdeko eta tokiko administrazioetan, eta administrazio horien solaskide izatea.

2. Eskualdeko eta tokiko kontseiluen eraketa, helburuak, osaera, eginkizun eta aitortpenerako arau komunak erregelamendu bidez arautuko dira.

3. Botere publikoek –toki eta foru botereek– hainbat sustapen neurri bultzatuko dituzte, aitortzen zaizkien funtzio publikoak garatzeko.

III. TITULUA

Gazteriaren arloko politikak

35. artikulua. Definizioa.

1. Gazteriaren arloko politikak dira botere publikoen jarduketak, bideratzen direnak gazteen behar eta egoerei erantzutera, haien adina dela-eta modu espezializatuan. Praktikan, gazteriaren arloko politikek aintzat hartu beharko dituzte gazteen garapen etapen berezitasunak, baita etapa horietako bakoitzean legez aitortutako eskubideak ere.

2. Gazteriaren arloko politikek babestuko dute gazteek askatasunez erabakitze-ko eskubidea, auktora berdintasuna eta gazteen kolektiboaren aniztasunari erantzutea. Horrez gain, kolektibo zaurgarrienei arreta berezia emanen zaie, eta gazteen artean balio demokratikoak sustatuko dira: tolerantzia, solidaritatea, konpromisoa, erantzukidetasuna, berdintasuna, aniztasunarekiko errespetua eta giza eskubideekiko errespetua.

36. artikulua. Gazteriaren arloko politiken tipologia.

Foru lege honen ondorioetarako, gazteriaren arloko politikak bi kategoriatan bereziko dira:

a) Politika espezifikokoak. Gazteriaren arloko eskumena duen departamentuaren eta toki entitateen lehentasunezko eskumen nagusia dira.

b) Zeharkako politikak. Beste departamentu batzuen politikak dira, edo Foru Komunitateko Administrazio osoari eragiten diotenak, eta gazteei zuzenean eragiten dieten gaiak barne hartzen dituzte. Politika horiek garatzeko, lankidetzan aritu beharko dira gazteriaren arloko eskumena duen departamentuarekin.

I. KAPITULUA

Gazteriaren arloko politika espezifikokoak

37. artikulua. Gazte politika espezifikokoak.

Gazteriaren arloko eskumena duen departamentuak arautu, garatu eta sustatuko ditu gazteriarri dagozkion politika espezifikoko hauek:

a) Hezkuntza ez-formala.

b) Gazteendako zerbitzuak eta jarduerak.

c) Gazteei informazioa eta aholku ematea.

d) Aisialdia.

e) Gazteendako instalazioak eta ekipamenduak.

- f) Gazteriaren arloko profesionalak.
- g) Gazteriaren arloko aitortzak.
- h) Gazteriaren arloan informazioa kudeatzea eta ezagutza lortzea eta sozializatzea.
- i) Aplikatzekoa den araudian ezarritako beste batzuk.

1. atala

Gazteei informazioa eta aholku ematea

38. artikulua. Gazteek informaziorako eta aholkularitzarako sarbidea izatea.

1. Nafarroako administrazio publikoek bermatuko dute gazteek eskubidea izan dezaten informaziorako eta aholkularitzarako zerbitzu egiazko eta profesionaletarako, eragiten dieten gai, erronka eta aukeretan erabakiak hartzen laguntzeko.

2. Nafarroako administrazio publikoek bultzatuko dute egiturak eta sistemak sor daitezen, gazteek informazioa lor dezaten haiei bideratutako baliabide, jarduketak, programa eta proiektuei buruz.

3. Gazteendako informazioa eta aholkularitza eskaintzean, bat egin beharko da Gazte Informazioaren Europako Gutunak arlo honetarako ezarritako printzipioekin, eta bat eginez Europako gidalerroekin.

4. Nafarroako administrazio publikoei aurrez aurreko baliabideak eta tresna digital efektiboak esleitu beharko zaizkie, gazteei bideratutako informazio eta aholkularitza lana errazteko eta aurrez aurreko arretarekin uztartuta.

39. artikulua. Gazteendako Informazio eta Aholku Zerbitzuen Sarea.

1. Nafarroako Gazteendako Informazio eta Aholku Zerbitzuen Sareak xede izanen du gazteei behar duten informazio eta orientazioa ematea, bizitza sozialean integratu eta parte har dezaten.

2. Erregelamendu bidez ezarritako aurreikuspenen arabera ofizialki aitortutako zerbitzuek osatuko dute, publiko edo pribatuak izan.

Nolanahi ere, Nafarroako Gazteriaren Institutuak koordinatuko du sarea.

3. Erroldatutako 1.000 gazte baino gehiago dituzten Nafarroako herriek gazteendako informazio zerbitzu propioa eskaintzeko behar diren mekanismoak bultzatu beharko dituzte.

4. Aurreko apartatuan adierazitako gazte kopurua baino txikiagoa duten udalerrriak beren artean erkidetzen ahalko dira, eta Foru Administrazio

Publikoaren babes handia jaso, aipatu zerbitzu horiek emateko.

2. atala

Hezkuntza ez-formala

40. artikulua. Hezkuntza ez-formala.

1. Gazteriaren arloko hezkuntza ez-formaltzat hartzen da ikaskuntza jarduera batzuen multzoa. Jarduera horiek ez daude arauturik titulu ofizialak lortzeko; aitzitik, berariaz diseinatuta daude kompetentziak barnertzeko eta gazteen garapen integralerako, balio demokratikoak eta berdintasunekoak sustatzeko eta gazteak ahalduntzeko.

2. Gazteriaren arloan, hezkuntza ez-formaltzat hartuko da aisialdiko hezkuntza. Eredu honetako prestakuntzak eskainiko dituzte gehienbat Nafarroako Gazteriaren Institutuak eta ofizialki aitortutako aisialdiko hezkuntza-eskolek.

3. Erregelamendu bidez ezarriko dira aisialdiko hezkuntza-eskolen aitortza ofiziala eta emanen dituzten irakaskuntzak.

3. atala

Gazteendako zerbitzuak eta jarduerak

41. artikulua. Gazteendako zerbitzuak eta jarduerak sustatzea.

1. Gazteendako zerbitzutzat hartuko dira gazteriaren arloko politiken esparruan diseinatutako guztiak, baldin eta gazteen garapena eta autonomia sustatzen badituzte.

2. Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek gazteen zerbitzu eta jarduerak sustatuko dituzte, norberaren autonomia eta garapen soziala bultzatzen duten tresna gisa. Batez ere, zaurgarritasun egoeran dauden gazteei bideratutako ekintzak sustatuko dira.

3. Gazteriaren arloko eskumenak dituen departamentuak sustatuko du landa eremuan gazteendako zerbitzuak ezartzea eta jarduerak gauzatzea.

42. artikulua. Europako Gazte Txartela programa.

1. Nafarroako Europako Gazte Txartela programa gazteendako zerbitzu bat da, xede duena gazteen kontzientzia zibikoa eta adinari lotutakoa indartzea, eta haien garapenerako zerbitzu, produktu eta instalazioetarako sarbidea erraztea, abantailekin.

2. Nafarroako Europako Gazte Txartela izanez gero, eskubidea izaten ahalko da gazteriaren arloko eskumena duen departamentuak antolatutako parte-hartze prozesu digitaletan laguntzeko.

43. artikulua. Gazteendako jarduerak.

1. Foru lege honen ondorioetarako, gazteendako jardueratzat hartuko da gazteei bideratutako jarduera multzoa, haien garapen pertsonal eta soziala sustatzeko helburua duena, eta gizartearen eta haien ingurunean parte hartzeko eta esku hartzeko bideak eraikitzen dituena.

2. Gazteendako jarduera berariazkotzat hartuko dira honako hauek:

a) Mugikortasun jarduerak, nazio barnekoak zein nazioartekoak, baldin eta xede badute beste errealitate, hizkuntza eta kultura batzuk ezagutzera, beste gazte batzuekin bizikidetzat erraztea eta solidaritatea sustatzea.

b) Aisialdiko jarduerak, baldin eta alderdi ludiko, olgetarako, prestakuntzarako edo sozial bat badute.

c) Gazteendako eztabaidarako espazioak, kontzientziario espazioak eta parte-hartze espazioak, beren ingurune sozial, politiko, ekonomiko eta ingurumenekoan.

d) Gazteen boluntariora sustatzen duten jarduerak.

e) Gazteendako ekintzak aire zabalean: kanpamentuak, kanpalekuak, auzolandegiak, ibilaldiak eta antzeko jarduerak.

f) Gazteen sormen artistiko eta kulturala.

4. atala**Gazteendako instalazioak eta ekipamenduak**

44. artikulua. Gazteendako instalazioak eta ekipamenduak.

1. Gazteendako instalaziotzat hartuko dira espazio fisiko iraunkorrak, titulartasun publikokoak zein pribatukoak. Xede izanen dute gazteen parte-hartzea, prestakuntza, elkartzea eta ostatua erraztea, edo gazteendako zerbitzu eta jarduerak modu egonkorrean barne hartzea.

2. Adierazitako xedea betetzeaz gain, ofizialki gazteendako instalaziotzat hartuak izateko, Nafarroako Gazteriaren Institutuak halakotzat aitortu beharko ditu. Erregelamendu baten bidez zehaztuko dira instalazio motak, horien funtzio espezializatuen arabera eta gazteei zerbitzu emateko espazioen behin-behineko konbinazioen arabera.

3. Titulartasun publikoko gazteendako instalazioek eta ekipamenduek gazte guztiei oro har eskaini beharko dizkiete zerbitzuak, gazteen jatorria edo bizitokia edozein dela ere.

4. Erroldatutako 1.000 gazte baino gehiago dituzten Nafarroako udalerrriak instalazio edo ekipamenduren bat izaten saiatuko dira, gazteei lehenetasunez bideratutakoa.

5. Aurreko apartatuan adierazitako atalaseira iristen ez diren udalerrietan, Foru Komunitateko Administrazioak lurralde arteko lankidetzarako tresnak emanen ditu (eskualdeko instalazioak, zerbitzu ibiltariak eta udalerrien arteko akordioak, besteak beste), landa eremuko gazte guztiek behar bezalako sarbidea izan dezaten instalazio eta ekipamenduetara, edozein tokitan bizi direla ere.

5. atala**Gazteriaren arloko profesionalak**

45. artikulua. Gazteriaren arloko profesionalak.

1. Foru lege honen ondorioetarako, gazteriaren arloko profesionaltzat hartuko dira funtzio espezializatuak gauzatzen dituztenak, hartzaile gazteen adinaren arabera, bat eginez foru lege honen eduki objektiboarekin.

2. Gazteekin egiten den lan profesionala lan jarduera gisa egiten ahalko da, sektore publikoan zein pribatuan. Gazteriaren arloko profesionaltzat hartuko dira, halaber, hirugarren sektorean borondatez lan egiten dutenak.

3. Gazteriaren arloko profesionalen kolektiboa osatuko dute, gutxienez, honako profil hauek: gazteriaren arloko teknikariak; informazioa eta aholkua emateko langileak; gazteen parte-hartzea sustatzeko langileak; gazteekiko gizarte laneko eta hezkuntzako langileak; aisialdiko hezkuntza-eskoletako irakasleak, eta gazteei bideratutako aisialdiko hezkuntza jarduerak zuzentzeko eta monitorizatzen dituzten langileak.

4. Gazteekin modu profesionalan lan egiteak esan nahi du zorrotz bete behar direla haurrak babesteko legerian jasotako aurrekari penalekiko bateraezintasunak, eta abusuak prebenitzeko eta detektatzeko protokoloak txertatzen direla.

5. Profil profesional bakoitzaren funtzioak erregelamendu bidez arautuko dira.

46. artikulua. Gazteriaren arloko profesionalen trebakuntza.

1. Nafarroako Gazteriaren Institutuak sustatuko du trebakuntza teoriko eta praktikoa izan dezaten Nafarroako administrazio publikoaren mendeko gazteriaren arloko profesionalak.

2. Nafarroako Gazteriaren Institutuak ziurtagiriak egiten ditu, gazteriaren arloko profesionalen bideratutako trebakuntzarako prestakuntzen titulazio eta egiaztagirienak, barne hartuta aisialdiko

hezkuntza jardueren zuzendari eta monitore izateko gaikuntza ikastaroak, betiere Nafarroako Foru Komunitateari esleitutako eskumenekin bat.

3. Sustatuko da gazteriaren arloko ikasketa espezifikoak sortzea derrigorrezkoaren ondoko hezkuntzan.

4. Erabiltzaile talde nagusia gazteak diren instalazio eta ekipamenduetan, edozein kualifikazio-mailarekin zerbitzuak ematen dituzten pertsonak etengabeko prestakuntza espezializatua ere eskuratzen ahalko dute, arlo horretan duten gaikuntza hobetzeko.

47. artikulua. Gazteriaren arloko enpleguaren kalitatea.

Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek zainduko dute gazteriaren arloko profesionalen enpleguaren kalitatea, berdintasunaren aurkako oztopoak ezabatu, genero arrakalak gainditu eta laneko egonkortasuna eta etengabeko prestakuntza sustatu.

48. artikulua. Gazteriaren arloko Profesionalen Sarea.

1. Gazteriaren arloko eskumena duen departamentuak sustatzen ahalko du Gazteriaren arloko Profesionalen Sarea sor dadin, sektoreko koordinazio eta laguntza tresna gisa.

2. Nafarroako Gazteriaren Institutuari atxikita egonen da Gazteriaren arloko Profesionalen Sarea, eta haren izaera, osaera, antolaketa eta funtzionamendua erregelamendu bidez arautuko dira. Edonola ere, gazteek parte hartzeko bide nagusietako ordezkariek egonen dira bertan.

6. atala

Gazteriaren arloko aitortzak

49. artikulua. Gazteria Sariak.

1. Gazteria Sariak izanen dira Nafarroako Foru Komunitateko aintzatespen handiena gazteriaren arloan. Sarien xedea da publikoki aitortzea hainbatek eginiko lan eredugarria (pertsonak, taldeak, erakundeak edo instituzio publiko eta pribatuak) gazteen parte-hartze sozialaren, autonomiaren eta bizi kalitatearen alde.

2. Gazteria Sariak arautzeko, foru lege hau eta dagokion garapenerako araudia baliatuko dira.

50. artikulua. Beste aintzatespen mota batzuk.

Gazteriaren arloko departamentu eskudunak aldian-aldian sariak eta goresmen sariak ematen ahalko ditu, hainbat arlotan gazteek eginiko lana aitortzeko.

II. KAPITULUA Zeharkako politikak

1. atala Belaunaldiarteko justizia

51. artikulua. Gazteriaren arloko politika, belaunaldiarteko justiziarako gako gisa.

1. Lege honen ondorioetarako, hona zer den belaunaldiarteko justizia: printzipio bat, zeinaren arabera egungo belaunaldiek erabaki publikoak hartu eta baliabide ekonomiko, sozial, kultural eta ingurumenekoak kudeatu behar baitituzte, inola ere urritu gabe egungo gazteek eta etorkizuneko belaunaldiek beren eskubideak erabat baliatzeko, bizi-proiektuak garatzeko eta aukerak berdintasun-baldintzetan eskuratzeko duten gaitasuna.

2. Belaunaldiarteko justizia da Nafarroako Foru Komunitateko botere publiko guztien helburuetako bat. Gazteriaren arloko politika publikoek hori erdiesten laguntzen dute.

3. Gazteriaren arloan eskumenak dituzten administrazio publikoek koordinazio protokolo espezifikoak garatuko dituzte haurtzaroaren, nerabezaroaren eta hirugarren adineko pertsonen arloan eskumenak dituzten departamentuekin, bakoitzari dagokion mailan, arlo horretan ekintza koordinatuak gauzatzeko.

4. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-ko departamentuek beren baitan izan beharko dituzte Nafarroako Gazteriaren Institutuarekin lotura funtzioa izanen duten langileak, belaunaldiarteko justiziarako ekintzak zeharka koordinatzeko. Gazteriaren arloko eskumena duen departamentuak bultzatuko du langile horiek guztiek prestakuntza espezifikoa jaso dezaten aldian-aldian.

5. Xede hori lortzeko, aintzat hartu beharko da politika publikoek etorkizuneko belaunaldiengan izanen duten eragina, eta kontu eman beharko da gazteenganako eragin kaltegarriak ezabatzeko eta perspektibak hobetzea sustatzeko neurriak buruz.

52. artikulua. Belaunaldiarteko eraginaren txostena.

1. Nafarroako Gazteriaren Foroak behar beste laguntza emanen die botere publikoei, politika publikoek eta araugintza ekimenek gazteengan duten eraginari buruzko txostenak egiteko, baldin eta belaunaldiarteko justizian eragina izaten ahal badute, ebidentzietan oinarritutako ikuspegia parte-hartzailea barne hartzen badute eta belaunaldiarteko ikuspegiko neurrien errendimendua hobetzeko gomendioak eta proposamenak egiten badituzte. Halaber, txostenetan adinean espezializatutako beste instituzio batzuek parte hartzen ahalko dute, belaunaldiarteko ikuspegia barne hartzeko.

2. Nafarroako administrazio publikoek ahalmena izanen dute, nahi izanez gero eta egoki jotzen dutenean, Nafarroako Gazteriaren Foroari eskatzeko igor ditzan aurreko apartatuan adierazitako kontsulta txostenak, zeinak ez baitira aginduzkoak ez lotesleak izanen. Horretarako, Nafarroako Gazteriaren Institutuarekin koordinatuta, Nafarroako Gazteriaren Foroaren eskura jartzen ahalko ditu txostenak osatzeko kasuan-kasuan behar diren baliabideak eta bitartekoak.

3. Aurreko apartatuan ezarritakoa eragotzi gabe, Nafarroako Gazteriaren Foroak ofizioz eskaintzen ahalko dio dagokion administrazioari behar den txostena igortzea, beharrezkotzat jotzen duenean.

4. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak erregelamendu bidez garatzen ahalko du haurrak edo hirugarren adinekoak ordezkatzeko dituzten beste instituzio batzuen parte-hartzea, belaunaldiartekotasunaren ikuspegia txertatzeko eraginari buruzko txostenetan.

2. atala

Autonomiarako oinarrizko politikak

53. artikulua. Gazteak, enplegua eta ekin-tzailletza.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarendako, gazteen enplegua lehentasuna izanen da, eta helburu izanen du gazteendako lanpostuak sortzea eta mantentzea, horien kalitatea hobetzea eta trantsizioa erraztea hezkuntza sistematik lan merkatura.

2. Arlo honetako eskumena duten departamentuek politika aktiboak garatuko dituzte, honako hauek sustatzeko:

a) Gazteek lehen enplegurako sarbide duina izatea, eta lan baldintzen prekarizazioa ekiditea.

b) Gazteek beren lan eskubideak ezagutzea. Zehazki, egoki diren hainbat neurri sustatuko dira gazteek bigarren hezkuntza amaitzean informazioa jaso izan dezaten bidezko lan baldintzei buruz, eskubide sindikalei buruz, lan babesari buruz eta gizarte segurantzari buruz.

c) Prebenitzea gazteen laneko istripuak, laneko jazarpena, jazarpen sexuala edo genero jazarpena, bai eta bestelako babesgabetasun edo zaurgarritasun egoera batzuk ere.

d) Emakume gazteen artean sustatzea diziplina zientifikoak, teknikoak, ingeniartzakoak eta matematikakoak, eta, gizon gazteen artean, zaintzekin lotutakoak.

e) Bultzatzea bereziki zaurgarriak eta bazterke-ta arriskuan dauden gazteek goi mailako hezkuntzarako sarbidea izan dezaten.

3. Arloko eskumena duen departamentuak sustatuko du gazteek enpresak sor ditzaten, batez ere kooperatiben eta ekonomia sozialeko bestelako entitate eredu bidez. Horrez gain, sustatuko du lan autonomoa egin dezaten, gazteendako aholkularitza zerbitzuak indartu daitezen eta arlo honetan gazteen ekimenak aitor daitezen.

4. Unibertsitateen eta ikerketaren arloko eskumena duen departamentuak modu aktiboan babestuko du ikerketa lana, gazteendako aukera profesional gisa, unibertsitate arloan zein horretatik kanpo. Horretarako, ikerketa kontratuak sor daitezen sustatu beharko du, eta horiek gazte ikertzaileendako bidezko lan baldintzak bermatu beharko dituzte.

54. artikulua. Gazteak eta hezkuntza.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak zainduko du hezkuntza sistema kalitate onekoa eta ekitatean oinarritutakoa izan dadin, Nafarroako gazteendako garapen pertsonal, zibiko, sozial eta profesionalaren alde egiteko.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bermatuko du behar adinako ikaspostu egoki dagoela adingabeen eskola arreta ziurtatzeko. Zehazki:

a) Derrigorrezko eskolatze orokorra bermatzearen alde eginen du.

b) Eskola absentismoa eta uztearen aurka lan eginen du.

c) Gazteek derrigorrezkoaren ondoko ikasketetan jarrai dezaten sustatuko du, batez ere pobrezia arriskuan eta gizarte bazterkerian daudenei dagokienez.

3. Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioak zainduko du hezkuntzak gazteei prestakuntza oso eta orekatua eskaini diezaien, honako hauek ahalbidetzeko:

a) Gazteek beren identitate propioa osatzea, eta beren gaitasunak eta konpetentziak modu pertsonalizatuan garatzea, norberaren bizi proiektuko erronkei eta zailtasunei aurre egiteko.

b) Espazio kolektiboan identitate zibikoa osatzea, eragile estrategiko izate aldera espazio komuna, tokiko espazioa eta espazio orokorra garatzeko. Hartara, balio demokratikoak landuko dira: tolerantzia, solidaritatea, askatasuna eta diskriminazio eza.

4. Nafarroako administrazio publikoek balio demokratikoak sustatuko dituzte; horretarako, berdinen arteko tutoretza eta deliberazio prozesuak baliatuko dituzte, barne hartuta ikasleen ekimenez sortutakoak ere. Hain zuzen, gai hauek landuko dira:

a) Genero, desgaitasun eta egoera sozioekonomikoa edo kulturala dela-eta dauden desberdinkeriak.

b) Sexualitatea eta feminismoa, sexu jazarpenaren aurkako eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako borroka, haren modu eta adierazpen orotan.

c) Hizkuntza propioen balioa, Nafarroako errealitate historiko eta kulturala, eta bertako errealitate sozial, natural eta instituzionala.

d) Ingurumen hezkuntza eta baliabide naturalen sustapena eta erabilera arrazionala, bat etorri Nazio Batuen Erakundeak jasangarritasunerako prestatutako programazioarekin.

e) Parte-hartzea, herritar aktiboak garatzea eta kompetentzia sozial eta zibikoak.

5. Nafarroako administrazio publikoek ekintzak koordinatu eta hasiko dituzte, bai eta horien antolaera egokia gauzatu ere, ikasleak motibatuzko, ikaskuntza prozesuak malguak izateko eta haien familiak inplikatzeko metodologiak bermatzearren.

6. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak informazioaren eta komunikazioaren teknologiak baliatuko ditu, bai gazteen hezkuntza eskubiak benetan gauzatzeko bai gazteen parte-hartze zibikoa gauzatzeko.

55. artikulua. Gazteak eta etxebizitza.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak politika aktiboak gauzatzeko dituzte gazteek etxebizitzarako sarbidea izan dezaten. Politikak hizpide den kolektiboaren ezaugarrien araberrak izanen dira, eta etxebizitza duin eta egokirako sarbidea bermatzeko xedez gauzatzeko dira.

2. Etxebizitzaren arloko eskumena duen departamentuak gazteei bideratutako politika hauek gauzatzeko ditu:

a) Gazteendako informazio eta aholku kanalak sortzea eta indartzea etxebizitzaren gaiari dagokionez, Nafarroako Gazteriaren Institutuarekin lankidetzan.

b) Gazteek etxebizitzarako sarbidea izan dezaten zaintzea, batez ere zaurgarritasun egoeran daudenei dagokionez. Horretarako, espazioak sortu beharko dira Administrazioaren, etxejabeen

eta gazteen arteko bitartekaritzarako, bat etorri etxebizitza arloan indarrean dagoen araudiarekin.

c) Etxebizitzarako sarbidea izateko formula berriak sustatzea; besteak beste, gazteendako etxebizitza kooperatiboak eta etxebizitza sozialak.

d) Hainbat neurri sustatzea bermatu dadin desgaitasunen bat duten gazteek sarbidea dutela beren autonomiarako etxebizitza egokietara eta duinetara.

e) Programak eta planak onestea eta mantentzea, gazteek alokairurako sarbidea izan dezaten errazteko.

f) Mekanismoak sortzea, etxebizitzak lehentasunez gazteei adjudikatzea sustatzeko.

g) Laguntzak eta dirulaguntzak ezartzea, gazteek etxebizitzarako sarbidea izatea faboratzeko –etxebizitza libre zein babestua izan– eta horien eskuragarritasuna sustatzeko.

h) Etxebizitza hutsa mobilizatzeko ekintzak gauzatzea, gazteendako etxebizitza eskaintza handitu dadin.

i) Gazteek etxebizitzarako sarbidea landa eremuan izan dezaten sustatzea, lurralde garapena sustatzeko eta despoblazioa ekiditeko.

j) Etxebizitza edukitzearen eta alokatzearen arloan gehiegikeriak egoten ahal direnez gero, gazteak orientatzeko eta laguntzeko kanalak sortzea bultzatzea, eta, hala badagokio, doako laguntza juridikoko zerbitzuetarako sarbidea erraztea, dagozkion elkargo profesionalekin lankidetzan.

56. artikulua. Gazteak eta osasuna.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak gazteen osasun fisikoa eta ongizate emozionala sustatuko ditu ikuspegi salutogenikoa aintzat hartuta, eta arreta berezia eskainiko die bizi ohitura osasungarriak hartzeari; elikadura osasuntsua eta jarduera fisikoa sustatzeari; alkoholaren, tabakoaren eta beste droga batzuen kontsumoa prebenitzeari; suizidioa prebenitzeari; hezkuntza afektibo-sexualari; sexu-transmisiozko gaixotasunak prebenitzeari; joko patologikoari, eta substantziekin eta substantziarik gabe mendekotasuna sortzen duten beste jokabide batzuei.

2. Osasun arloko eskumena duen departamentuak, Osasun Mentaleko Planaren barnean, gazteei bideratutako ildo estrategiko bat garatzeko du, eta helburu hauek izanen ditu:

a) Komunitate eremuan, gazteei bideratutako osasun programak ezartzea, zeinen bidez sustatuko baitira, besteren artean, elikadura osasuntsua eta jarduera fisikoa, ongizate emozionala, kontsumoen

eta adikzioen prebentzioa –substantzietan edo gabe– eta sexu osasuna.

b) Ikastetxeetan osasun mentala sustatzeko programak egitea, hezkuntzaren arloan eskuduna den departamentuarekin lankidetzan, ikastetxeek nahikoa tresna izan ditzaten ikasleen beharrak asetzeko.

c) Bermatzea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren barnean psikologiaren arloko nahikoa profesional eta baliabide egon daitezen, eta Nafarroako Foru Komunitateko lurralde osoan banatu daitezen, helburu izanda gazteen artean osasun mentala sustatzea modu eraginkor, hurbil eta transbertsalean.

d) Bultzatzea, alde batetik, gazteek osasun eskubideak gauza ditzaten, eta, bestetik, osasun zerbitzuak egoki erabil ditzaten.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, xede izanik mendekotasunak eta osasun fisiko eta mentalean eragiten ahal duten erabilera arazotsuak ekiditea, sustatuko du modu osasungarriaren erabil daitezen harremanen, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak. Eta, aldi berean, ohitura osasungarriak sustatuko ditu, hala nola aire zabaleko jarduerak, jarduera fisikoa eta ingurune digitaletik kanpoko gizarte harremanak.

3. atala

Garapen pertsonalerako politikak

57. artikulua. Gazteak eta berdintasuna gizonen eta emakumeen artean.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak sustatuko du genero ikuspegia txertatu dadin edozein departamentuk prestaturik gazteendako politiketan, bete beharrez emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako indarrean dagoen legeria. Zehazki, gazteendako informazioaren bidez eta hezkuntza ez-formalaren bidez honako hauek prebenitzeko jarduerak gauzatuko ditu:

a) Nerabezaroaren eta gaztaroaren biktimizazio bikarioa.

b) Jazarpen matxista sare sozialetan eta emakumeen kontrako indarkeria tresna teknologikoen bidez.

c) Genero desberdinkeria gazteen parte-hartze espazioetan.

2. Berdintasun arloko eskumena duen departamentuak honako hauek sustatuko ditu, gazteriaren arloko departamentuarekin koordinatuta:

a) Gazteen garapen integralerako prestakuntza, oinarri izanik zainketa eta erantzukidetasuna,

eta alde batera utzirik estereotipoak eta identitatearen edo sexu edo genero identitatearen arabera-ko rolak.

b) Hainbat neurri ezartzea, ahalbidetuko dutenak aurrera egitea gizarte berdinzale, paritario eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabekoa lortzeko bidean, horretarako baliatuta gazteek duten indarra aldaketa sozialerako eragile gisa.

58. artikulua. Gazteak, sexu aniztasuna eta genero aniztasuna.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak sustatuko du sexu aniztasuna eta genero aniztasuna zeharka integratu daitezen gazteei bideratutako jarduketetan. Zehazki, gazteendako informazioaren bidez eta hezkuntza ez-formalaren bidez honako hauek prebenitzeko jarduerak gauzatuko ditu:

a) Tresna teknologikoen bidezko jazarpena sexu- eta genero-aniztasuna direla-eta, indarkeria eta gorroto-diskurtsoak sare sozialetan.

b) Gazteen parte-hartzerako espazioetan desberdinkeria izatea sexu-orientazioarengatik, genero-adierazpenarengatik eta sexu- eta genero-identitatea adieraztearengatik.

2. Arlo horietan eskumenak dituzten departamentuek gazte guztiengan sustatuko dituzte, batetik, sexu hezkuntza integrala, eta, bestetik, ongizate sexuala, oinarri izanik sexu eta ugalketa eskubideak zein sexu eta ugalketa osasuna errespetatzea, babestea eta sustatzea.

Era berean, neurri espezifikoak bultzatuko dituzte gazteen sexu eta genero aniztasuna barne hartzeko eta ikusarazteko gazteriaren, berdintasunaren eta indarkeria matxistaren arloko politiketan. Orobat, behar diren neurriak hartuko dira gazteen artean LGTBI+fobiari aurre egiteko.

59. artikulua. Gazteak, migrazioa eta kulturartekotasuna.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak sustatuko du jaioterria atzerrian duten gazte guztiek parte har dezaten haiei eragiten dieten erabaki eta politiketan, haien administrazio egoera edo estatus juridikoa edozein dela ere, eta bultzatuko du eguneroko bizitzan parte hartu dezaten eta ahaldundu daitezen.

2. Arlo honetan eskudunak diren departamentuek kulturartekotasuna sustatuko dute; hartara, gazteek, edozein dela ere haien jatorria, Nafarroako Foru Komunitatean dauden errealitate kulturalak ezagutzeko aukera izanen dute.

60. artikulua. Gazteak eta desgaitasuna.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak politika publikoak sortuko ditu, desgaitasunen bat duten gazteei bideratutakoak, irisgarritasun unibertsala sustatzeaz gain, erabateko gizarte inklusioa, norberaren autonomia eta bizitza independentea ere sustatzeko.

2. Gai honetan eskudunak diren departamentuek hainbat neurri hartuko dituzte, desgaitasunen bat duten gazteen autonomia hobetze aldera. Zehazki, politika espezifikoak baliatuko dituzte honako arlo hauetan: hezkuntzarako sarbidea, parte-hartzea, osasuna, aisialdia, etxebizitzarako sarbidea eta lan mundurako sarbidea. Politika horiek zaurgarritasunaren ikuspegi intersektionalak barne hartuko dituzte, horien artean generoa eta bestelako baldintzatze subjektiboak.

4. atala

Sarbide politikak eta ingurunearekiko harremanak

61. artikulua. Gazteak eta kultura.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta toki entitateek aitortuko dute gazteek eskubidea dutela kultura garapenerako sarbidea izateko eta bertan parte hartzeko. Xede hori bete-tze aldera, gazteriaren arloko politikak garatuko dira, sormena, kulturartekotasuna eta Nafarroako kultura ondarea sustatzeko.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta toki entitateek erraztuko dute gazteek Nafarroako museo, interpretazio zentro eta antzeko espazio kulturaletarako sarbidea izatea, espazio horien titulartasun publikoa foru mailakoa edo toki mailakoa izan.

3. Kulturaren arloan eskuduna den departamentuak, gazteriaren arloko eskumena duenarekin batera, gazteei bideratutako ekintzak gauzatu-ko ditu, honako helburu hauek betetzeko:

a) Sustatzea Nafarroako Foru Komunitatearen ondasun historiko, artistiko eta kulturalen ezagutza.

b) Artea eta kultura zabal daitezen sustatzea, batez ere arte eta kultura garaikideei dagokienez.

c) Ekoizpen kultural ez-profesionaleko ekime-nak sustatzea, laguntza espezifiko bidez.

62. artikulua. Gazteak eta kirola.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak hainbat ekintza garatuko ditu gazteen artean kirola garapen integralerako oinarritzko elementu gisa sustatzeko eta indartzeko, bizi kalitatea hobetzeko eta ongizate indibiduala eta kolektiboa zain-tzeko.

2. Kirolaren arloko eskumena duen departamentuak jarduera fisikoa eta hainbat kirol dizipli-natan jardutea sustatuko ditu, gizartean parte har-tzea eta haren parte izatea sustatzeko estrategia gisa, batez ere emakume gazteei, jaioterria atze-rrian duten gazteei, desgaitasunen bat duten gaz-teei eta zaurgarritasun egoeran dauden gazteei dagokienez.

3. Kirolaren arloan eskuduna den departamen-tuak gazteendako kirol lehiaketak eta txapelketak sustatuko ditu, toki zein autonomia erkidegoen mailan, eta sustatuko du gazteek kirol elkarteetan parte har dezaten.

63. artikulua. Gazteak, aisialdi hezigarria eta aisialdia.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administra-zioak gazteei bideratutako aisialdiko jardueren eskaintza handitzeko eta hori kalitatekoa izateko neurriak sustatuko ditu, eta jarduera horiek baliatuko ditu nortasuna garatzeko eta desberdinkeriak gainditzeko eta garapenerako aisialdi hezkuntzako tresna gisa.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administra-zioa arduratuko da, esparru honetan gauzatzen dituen ekintzetan, aisialdi eredu inklusiboa, justua, ekitatiboa, unibertsala, kolektiboa eta osasuntsua izateaz.

3. Gazteak barne hartu beharko dira Nafarroa-ko Foru Komunitateko Administrazioaren eta tokiko entitateen aisialdiko jardueren eskaintza diseina-tzean eta ezartzean, haien nahi eta behar indibi-dual zein kolektiboei erantzuten zaiela bermatzeko estrategia gisa.

4. Jarduera horiek garatuko dira bat eginez balio demokratikoekin eta giza eskubideekin kohe-renteak diren hezkuntza programekin.

64. artikulua. Gazteak eta informazioaren gizartea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administra-zioak sustatuko du gazteek baldintza berdintasu-nean izan dezaten sarbidea harremanen, informa-zioaren eta komunikazioaren teknologietara. Hala, behar diren baliabide teknologikoak eta konexioak ezarriko ditu arrakala digitala ekiditeko.

2. Gai horietan eskumena duten departamen-tuek faboratuko dute informazioaren teknologiak eta hezkuntza mediatikoa ekimenez, sormenez eta modu berritzailean erabiltzea, bai eta tresna digitalak garapen pertsonalerako espazio gisa erabiltzea ere, batez ere laneko eta hezkuntzako esparruetan.

3. Arlo horretako eskumenak dituzten departamentuek sustatuko dute harremanen, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu arduratsuan erabiltzea, eta prebenituko dute gazteen arteko jarduketa desegokiak edo delituzkoak gauzatzea, oso gaztetatik sarbidea izatea pornografiara, emakumeen kontrako indarkeria digitala, bai eta gazteen artean gorroto diskurtsoak, gezurak eta desinformazioa zabaltzea ere.

4. Arlo horretako eskumenak dituzten departamentuek bultzatuko dute gazteak trebatu daitezten adimen artifiziala printzipio demokratikoen arabera erabiltzeko, desinformazioaren aurka borrokatzeko eta giza eskubideak errespetatzeko. Halaber, une oro teknologia horren erabilera etikoa, arduratsua eta gardena sustatuko dute, eta gazteen datu pertsonalen babesa, intimitatearen babesa eta segurtasun digitala.

65. artikulua. Gazteak eta euskara.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak gazteen hizkuntza eskubideak bermatuko ditu; euskara ikas dezaten ahalbidetu eta sustatuko du, eta euskara sustatuko du prestakuntza etapa guztietan. Halaber, euskararen erabilera eta normalizazioa sustatuko du gazteek beren nortasuna garatzen duten espazio guztietan.

66. artikulua. Gazteak, ingurumena eta ekologia.

1. Arlo hauetako eskumenak dituzten departamentuek gazteen ingurumen hezkuntza sustatu beharko dute, baliabideen eta egun zein etorkizunearan izanen diren arazo ekologikoen sentsibilizazio, trebakuntza eta prestakuntza tresna gisa, xede izanik belaunaldien arteko solidaritatea sustatzea eta gazteek ingurumenarekiko konpromisoa izan dezaten lortzea.

2. Ingurumen arloko eskumena duen departamentuak sustatuko du gazteek aktiboki parte har dezaten larrialdi klimatikoaren aurkako eta trantsizio ekologiko eta sozial justuaren aldeko ekimenetan. Horrez gain, sustatuko du gazteak aitortzea krisialdi klimatikoaren aurkako babeserako politiketan botere publikoen jarduketan subjektu fiskalizatzaile gisa.

3. Nafarroako Gobernuaren ingurumenaren arloko politikak aintzat hartuko ditu etorkizuneko belaunaldien eskubideak.

67. artikulua. Gazteak eta landa ingurunea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak faboratu eta erraztu beharko du gazteak landa eremuan geratu eta finkatu daitezten. Hala, babes berezia eskainiko die Nafarroako gazte nekazari eta abeltzainei, bai eta gainerako sektoreen garapen orekatu eta jasangarriari ere.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bermatu beharko du landa eremuan bizi diren gazteek berdin-berdin izan dezaten sarbidea gazteriaren arloko baliabide eta zerbitzuetara.

3. Etxebizitzaren arloko eskumena duen departamentuak erraztu beharko du gazteek etxebizitzarako sarbidea izan dezaten landa eremuan, horretarako baliatuz birgaitzeko eta etxebizitza publikoak eraikitzeko politika bereziak.

4. Arlo hauetako eskumenak dituzten departamentuek sustatu beharko dute landa eremuan enplegua sustatzea ekimen hauen bidez, besteak beste: gazteak ekintzaitzara bultzatzekoak, gazteak kooperatibetan sartzekoak eta lehen sektorean belaunaldi erreleboa sustatzekoak.

5. Arlo honetako eskumenak dituzten departamentuek aktiboki sustatuko dute emakume gazteak sar daitezten eta genero ikuspegia txertatu dadin landa eremuko garapen politiko, sozial, ekonomiko eta kulturalarekin lotutako ekintza guztietan.

68. artikulua. Gazteak, mugikortasuna eta garraio publikoa.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak gazteen artean sustatuko du mugikortasun jasangarriko moduak erabiltzea, garraio publikoan haien gaitasun ekonomikoaren arabera sarbidea bermatuz eta mugikortasun pertsonaleko ibilgailu ez-kutsakorrek eskuratzeko aukera eskainiz. Hain zuzen ere, sustatuko du lehenetsi dadin garraio kolektiboa erabiltzea, eta ez hainbeste autoak eta bestelako mugikortasun indibidualerako ibilgailu motordunak.

2. Nafarroako Europako Gazte Txartelaren titulartasuna barne hartzen ahalko da komunitate osoan erabiltzen ahalko den garraiorako sistema bakarrean, bai eta instituzioen arteko lankidetzarako akordioen bidez foru mailatik haragoko sistemetan ere.

3. Arlo hauetan eskumenak dituzten departamentuak hainbat ekintza gauzatuko dituzte, gazteek prestakuntza jaso dezaten sustatzeko, batez ere bide segurtasuneko hezkuntzari, bide segurtasunari eta mugikortasun jasangarriari buruz, eta

arreta berezia eskainiko diete zirkulazio arduratsuari eta gidatzeari lotutako arrisku jokabideen prebentzioari.

4. Administrazio publikoek bermatuko dute landa eremuan bizi diren gazteendako garraio eskaintza egokia egon dadin. Horretarako, sustatuko dute loturak indartu daitezten landaguneen eta hezkuntza, osasun, kultura edo lan zentroyen artean, baita hezkuntza eta osasun zerbitzuekin ere, besteak beste. Halaber, mugikortasun konponbideak diseinatzen ahalko dira eskariaren arabera, bai eta landa eremuko gazteen beharren arabera, haiek landa eremuan gera daitezten errazteko.

69. artikulua. Gazteak Nafarroatik kanpo.

1. Arlo hauetan eskumenak dituzten departamentuek mekanismoak eta tresnak bultzatuko dituzte, errazte aldera Nafarroako gazteen mugikortasun geografikoa, nazio barnekoa zein nazioartekoa, haien prestakuntza eta enplegarritasuna hobetzeko eta haien kulturartekotasunaren ikuspegia eta garapen pertsonala hobetzeko.

2. Arlo hauetan eskumenak dituzten departamentuek hainbat neurri hartuko dituzte errazteko eta sustatzeko Nafarroako Foru Komunitatera itzul daitezten beste autonomia erkidego batzuetara edo beste herrialde batzuetara joandako gazteak. Hain zuzen ere, Nafarroatik kanpo dauden bitartean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak aukera emanen du komunikazio bideak izateko gainerako botere publikoekin, gazteek beren identitatea eta kultura mantentzen laguntzeko eta itzultzeko politikak eskaintzeko.

70. artikulua. Gazteak eta memoria demokratikoa.

Memoria demokratikoaren arloko eskumena duen departamentuak memoria demokratikoaren arloko politika publikoak sustatuko ditu, zeinak berriaz gazteei bideratuko baitzaizkie, haiek ezinbesteko agente baitira gizarte justuago, etikoago eta demokratikoago bat eraikitzeko. Xede hori beteaz, bakearen eta errespetuaren kultura sustatu beharko da gazteen artean, bai eta gorroto diskurtsoen aurkakoa ere. Gainera, ezagutzera eman beharko zaie Nafarroan izandako errealitate historikoa, indarkeria mota orori dagokionez, eta, zehazki, errepresio frankistarekin lotutakoari dagokionez.

71. artikulua. Gazteak eta kontsumo jasangarria.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak hainbat neurri sustatu beharko ditu, bermatzeko gazteek egiazko informazioa izan dezaten ekoizpen eta kontsumo jasangarriari buruz, kontsumitzaile gisa dituzten eskubideei buruz eta horiek gauzatzeko eta defendatzeko moduei buruz.

III. KAPITULUA

Gazteriaren arloko politikak planifikatzea eta gazteen errealitateak ebaluatzea

1. atala

Gazteriaren arloko politiken plangintza

72. artikulua. Nafarroako Gazteriaren Estrategia.

1. Nafarroako Gazteriaren Estrategiak jarraibide orokorrak ezartzen ditu gazteriaren arloan Nafarroako administrazio publikoendako.

2. Nafarroako Gazteriaren Estrategia indarrean egonen da, gutxienez, 9 urtez, horrek galarazi gabe Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak berrikustea beharrezkotzat jotzen duen gutxitan.

3. Nafarroako Gazteriaren Estrategian honako hauek jaso beharko dira, gutxienez: onespeneraren unean, Nafarroako gazteek bizi duten egoerari buruzko azterketa; gazteriaren arloko politikak garatzean izan beharreko ildoak; Estrategia betetzen den ebaluatzeke tresna zehatzak, eta Estatuko Administrazio Orokorrak, Europar Batasunak eta nazioarteko erakunde eskudunek gazteriaren arloan hartutako bestelako jarraibideen egokitzapena.

4. Nafarroako administrazio publikoek onesten dituzten gazteriaren arloko planek bat egin beharko dute Nafarroako Gazteriaren Estrategian jasotako jarraibideekin.

73. artikulua. Nafarroako Gazteriaren Estrategia egiteko eta onesteko prozedura.

1. Gazteriaren arloan eskuduna den departamentuak prestatuko du Nafarroako Gazteriaren Estrategia, Nafarroako Gobernuaren gainerako departamentuekin bat eta Nafarroako Gazteriaren Foroarekin koordinatuta.

2. Nafarroako Gazteriaren Estrategia prestatzeko, arlo horretako eskumenak dituen departamentuak parte-hartze prozesu bat egingen du, informazioa jasotzeko gazteen lehentasunei eta eskariei buruz, eta ondoren estrategian txertatzeko.

3. Nafarroako Gazteriaren Estrategiaren zirri-borroaren proposamena bidaliko zaie Nafarroako Gazteriaren Foroari eta egoki diren kontsulta eta koordinazio organoei, horri buruzko txostena egin dezaten eta beharrezko jotzen dituzten gomendioak egin ditzaten.

4. Nafarroako Gazteriaren Estrategia Nafarroako Gobernuaren erabaki bidez onetsiko da, gazteriaren arloko eskumena duen departamentuko titularrak eskatuta.

74. artikulua. Nafarroako Gazteriaren Estrategia berrikustea.

1. Nafarroako Gazteriaren Estrategia aldian-aldian berrikusiko da, hori prestatzeko eta onesteko aipatu diren xedapenen arabera. Edonola ere, hautazkoa izanen da aurreko artikuluan aipatu parte-hartze prozesua egitea.

2. Berrikuspena egiten ahalko da, gazteriaren arloko eskumena duen departamentuak eskatuta, Nafarroako Gazteriaren Foroak modu arrazoituan eskatuta edo Nafarroako Parlamentuaren gehien-go soilak gomendatuta.

75. artikulua. Nafarroako Gazteriaren Estrategiaren jarraipena eta ebaluazioa.

1. Gazteen arloko eskumena duen departamentuak jarraipen eta ebaluazio prozesu bat gauzatu beharko du, Nafarroako Gazteriaren Estrategiari dagokionez.

2. Gazteriaren arloko eskumena duen departamentuak Nafarroako Gazteriaren Estrategiaren ebaluazio txosten bat aurkeztu beharko du indarraldia amaitzean. Txosten hori Nafarroako Gazteriaren Foroari eta Nafarroako Parlamentuari igorriko zaie.

76. artikulua. Gazteriaren planak.

1. Gazteriaren planak gazteriaren arloko politikak planifikatzeko tresnak dira, lurraldeko administrazio batek bere eskumenen esparruan aplikatzekoak. Haien xedea izanen da Nafarroako Gazteriaren Estrategia aplikatzea eta garatzea, eta, horretarako, planetan politika publikoen helburu zehatzak ezarriko dira.

2. Gazteen eskariei eta haiei eragiten dieten arazoei dagokienez, gazteriaren planek integralak, unibertsalak eta transbertsalak izan beharko dute.

3. Gazteriaren planek elementu hauek izanen dituzte, gutxienez: aurretiazko diagnostikoa, lortu beharreko helburuen proposamena, planak garatzeko ekintzak, ebaluazio adierazleak, memoria ekonomikoa, gauzatzeko egutegia, etengabeko jarraipenerako plana eta proposatutako ekintzen ebaluazioa.

4. Administrazio bakoitzean gazteriaren arloko politikak koordinatzeko lana bere gain hartzen duen organoak edo unitateak izanen du ardura gazteriaren planak prestatu eta proposatzeko. Planak onetsi eta partzialki aldatzeko eskumena izanen dute administrazio publiko bakoitzeko gobernu-organoei, bat etorritik dagokion araudian ezarritako eskumenen banaketarekin.

5. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak gazteriaren planak onesten ahalko ditu, eta haien gehieneko indarraldia 5 urte izanen da.

6. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak toki entitateei bultzada eta laguntza emanen die tokiko gazteria planen prestatetara. Erroldan 1.000 gazte baino gehiago dituzten Nafarroako udalerriak Gazteriaren Tokiko Plana izaten saiatuko dira, aurreko apartatuan jasotako indarraldiaren arabera.

Gainerako udalerriek beren plangintzarako tresnak osatzen ahalko dituzte udalez gaindiko entitateekin batera edo haiekin koordinaturik, eta Foru Komunitateko Administrazioaren laguntzaz.

7. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak beste edozein gairi buruz prestatzen dituen planetan, gazteei eragiten badiete, gazteriaren arloko ikuspegia txertatu beharko dute, eta iritzia eskatuko zaio, hala badagokio, Nafarroako Gazteriaren Foroari, betiere Nafarroako Gazteriaren Institutuarekin koordinatuta.

2. atala

Gazteen errealitateak ebaluatzea

77. artikulua. Gazteen gizarte errealitateari buruzko txostena.

1. Nafarroako Foru Komunitateko gazteen errealitatea aldizka aztertzeko eta ebaluatzeko tresna nagusia da gazteen gizarte errealitateari buruzko txostena. Helburua da gazteen eskubideen arloko egiturazko zaurgarritasun zehatzak identifikatzea eta diagnostikatzea.

2. Txostena aldian-aldian eginen du gazteriaren arloko eskumena duen departamentuak, Nafarroako Gobernuaren gainerako departamentuekin eta toki entitateekin lankidetzan. Horien diseinuan eta barne berrikuspenean parte hartuko dute Zientzia Batzordeak eta Behatokiko langileek.

3. Txostena egindakoan, Nafarroako Gazteriaren Foroari igorriko zaio, eta hark txosten osagarri bat aurkezten ahalko du, gazteek idatzitako hausnarketak eta eskariak barne hartuta.

4. Gazteen gizarte errealitateari buruzko txostena eta Nafarroako Gazteriaren Foroaren txosten

osagarria, halakorik egonez gero, Nafarroako Parlamentuan aurkeztuko dira, Parlamentuan gaiaren arloko eskumena duen batzordeak horien inguruan eztabaida dezan.

5. Nolanahi ere, gazteei buruzko estatistikan barne hartuko dira sexua eta bestelako aldagai batzuk, berdintasun efektiborako arrakalak eta oztopoak identifikatzen lagunduko dutenak.

IV. TITULUA Baliabideak eta finantzaketa

78. artikulua. Finantzaketa iturriak eta printzipioak gazteriaren arloan

1. Gazteriaren arloko politika, jarduera, zerbitzu, ekipamendu eta instalazioek sortzen dituzten gastuen finantzabideak honako hauek izanen dira:

a) Nafarroako aurrekontu orokorretako eta Nafarroako toki entitateen aurrekontuetako ekarpenak.

b) Beste administrazio publiko batzuek eginiko ekarpenak, halakorik badago.

c) Entitate pribatuek eginiko ekarpenak.

d) Gazteriaren arloko zerbitzu, jarduera eta instalazioen erabiltzaileen diru ekarpenak.

e) Xede horretarako ezarritako jaraunspenak, dohaintzak edo legatuak.

f) Xede horretarako ezarritako zuzenbide publiko edo pribatuko beste edozein diru-sarrera.

2. Zehazki, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, gazteriaren arloko eskumena duen departamentuaren bitartez, laguntza emanen die Nafarroako toki entitateei gazteriaren arloko politika, jarduera, zerbitzu, ekipamendu eta instalazioak gara ditzaten.

3. Botere publikoek Nafarroako Gazteriaren Foroaren ohiko funtzionamendua babestuko dute, haren funtzio publikoak gauza ditzan.

4. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak sustatutako gazteriaren arloko politikak hornitzean, xedeak betetzeko egokia eta nahikoa den finantzaketa ezarri beharko da, bat etorritik ekitaldi bakoitzeko aurrekontu-baliabideekin eta garatu beharreko programa eta ekintzen ondoriozko beharrek.

Era berean, ahaleginak egingen dira gazteriaren arloko politiketarako aurrekontu zuzkiduren garapena koherentea izan dadin Nafarroako Aurrekontu Orokorraren garapen orokorrari dagokionez, bat etorritik, betiere, aurrekontu ekitaldi bakoitzeko hel-

buruekin, lehentasunekin eta baliabideen erabilgarritasunarekin.

5. Gazteriaren arloan baliabideak esleitzean, lurralde kohesiorako eta belaunaldiarteko kohesiorako, berdintasun positiborako eta erabateko inklusiorako irizpideak barne hartu beharko dira.

79. artikulua. Erabiltzaileek finantzaketan parte hartzea.

1. Gazteriaren arloan jardueretan edo zerbitzuetan parte hartzeko edo ekipamenduak eta instalazioak erabiltzeko administrazio eskudunek onesten dituzten tarifa publikoen erregimena ezartzean, aintzat hartuko dira gazteen ezaugarri espezifikoak.

2. Gazteek jardueretan parte hartzeagatik, zerbitzuak jasotzeagatik edo ekipamendu eta instalazio publikoak erabiltzeagatik ordaindu beharrekoa ez da inolaz ere horien kostutik gorakoa izanen.

3. Nafarroako administrazio publikoek faboratu dute laguntza ekonomikoak ematea gazteei, zuzenean edo gazteak bildu eta ordezkatzeko dituzten erakunde bidez. Laguntzen xedea izanen da jarduera eta zerbitzuetan parte hartzea sustatzea, eta gazteendako instalazioak erabiltzea sustatzea.

V. TITULUA Ikuskapena eta zehapen-araubidea

I. KAPITULUA Gazteriaren arloko ikuskapena

80. artikulua. Ikuskatzailearen eskumenak eta eginkizunak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoei dagokie, beren lurralde eremuan eta beren eskumenen esparruan, ikuskatzeko administrazio ahala. Horren baitan dago gazteriaren arloko legezko xedapenak betetzen direla ikuskatzea, kontrolatzea eta egiaztatzeko funtzioak gauzatzea. Funtzio hori gauzatzeko, administrazioak koordinatu beharko dira, eta behar diren baliabide materialak eta giza baliabideak bideratu.

2. Ikuskapen lana zerbitzu eta jarduera ikuskatuekiko loturarik gabe eta autonomiaz egingen da, eta foru lege honetan eta hori garatzen duten erregelamendu arauetan xedatutakoari hertsiki jarraikiz.

3. Gazteriaren arloko ikuskapenak, beste lege batzuetan araututako ikuskapen jarduerak galarazi gabe, eginkizun hauek izanen ditu:

a) Foru lege honetan eta garapenerako gainerako arauetan ezarritako betebeharrak betetzen diren begiratu eta egiaztatzea, horiek ez betetzeak arau-hauste administratiboa ekar badezake.

b) Partikularren erreklamazio edo salaketen xede diren eta arau-haustea izan daitezkeen gertaerak egiaztatzea.

c) Proposatzea, kasuan-kasuan, foru lege honetan xedatutakoa bete dadin bermatzeko kautelazko neurriak har daitezkeen.

d) Proposatzea behar diren zehapen-prozedurak hastea.

e) Laguntza publikoren bat jaso duten gazteendako jardueren eta zerbitzuen garapena kontrolatzea.

f) Zaintzea gazteendako jarduera, zerbitzu, ekipamendu eta instalazioak erabiltzen dituztenen eskubideak zaintzen direla.

g) Erregelamendu bidez esleitzen zaizkion gainerakoak.

81. artikulua. Ikuskatzaileak.

1. Foru lege honen ondorioetarako, administrazio bakoitzean ikuskatze lanak egiten dituztenak agintaritzat hartuko dira, eta, horrenbestez, dagokion araudiaren arabera ezarritako babesa eta eskudantziak izanen dituzte.

2. Ikuskatzaileek, beren funtzioak gauzatzen dituztenean, beste edozein agintaritzari eskatzen ahalko diote behar duten laguntza, esku-hartzea edo babesa. Agintaritza horiek nahitaez eman beharko diote laguntza hori, eta ezagutzen dituen egitate eta informazio guztien sekretu profesionala zorrozki gorde beharko dute.

3. Eginkizunak betetzean, gazteriaren arloko ikuskatzaileek zilegi izanen dute, indarra duen legediarekin bat, foru lege honek ezarritako araubidearen mende dauden lokal, instalazio, ekipamendu, jarduera eta zerbitzuetan alde aurretik abisatu gabe eta nahi dutenean sartzea, egoitzaren bortxaezintasuna errespetatuz betiere, eta beharrezkotzat jotzen duten informazio eta dokumentazioa eskatzea.

II. KAPITULUA **Zehapen-araubidea**

1. atala **Arau-haustea**

82. artikulua. Gazteriaren arloko arau-haustea.

1. Gazteriaren arloko arau-haustea dira foru lege honetan eta hura garatzeko xedapenetan jasotako preskripzioak urratzen dituzten ekintzak edo ez-egiteak, baldin eta kapitulu honetan arau-haustetzat jasota badaude.

2. Arau-haustea arinak, astunak edo oso astunak izan daitezke.

83. artikulua. Erantzuleak.

1. Foru lege honetan jasotako arau-haustea egiteagatik administrazio erantzukizuna egotziko zaio kapitulu honetan tipifikatutako arau-haustea egiten duen pertsona fisiko edo juridikoari, eragotzi gabe egozten ahal zaizkion erantzukizun zibilak, penalak edo bestelakoak.

2. Gazteendako lokalak, ekipamenduak, instalazioak, jarduerak edo zerbitzuak sustatu, kudeatu edo ustiatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak erantzule izanen dira akreditatzen bada behar den diligenziaz edo arretaz ez dutela jokatu, hiru-garrenek eginiko arau-haustea prebenitzeko betebeharra gauzatzeko.

84. artikulua. Arau-hauste arinak.

Arau-hauste arinak hauek izanen dira:

a) Foru lege honetan ezartzen diren betebeharrak edo erregelamenduz ezar daitezkeen atzerapen soil bat dakarten jarduketak edo ez-egiteak.

b) Prestakuntza lanetan aritzea horretarako eskatutako baldintzak bete gabe, ez bada arau-hauste astuna edo oso astuna.

c) Gazteendako informazio eta aholku zerbitzuak eman edo ezartzea horretarako eskatutako baldintzak bete gabe.

d) Entitate publiko edo pribatuek Europako Gazte Txartelaren Programaren barnean hartutako konpromisoak ez betetzea, kalifikazio larriagorik ez badago.

e) Ez-betetzea gazteendako ekipamendu edo instalazioen funtzionamendu, mantentze-lan eta kokapenaren baldintzak, eta instalazioak erabiltzea ezarritakoez bestelako xede batzuetarako.

f) Beste kalifikazio larriagorik ez duten betebeharrak ez betetzea.

85. artikulua. Arau-hauste astunak.

Honako hauek dira arau-hauste astunak:

a) Ikuskapen lana oztopatzea, baina hori eragotzi gabe.

b) Zerbitzu eta instalazioetan funtsezko aldaketak egitea behar diren arauko formalitateak bete gabe.

c) Arau-hauste arin gisa jasotakoak, baldintza hauetako bat betetzen bada:

c.1) Gazteendako jardueren, zerbitzuen, ekipamenduen edo instalazioen erabiltzaileen osasunean edo segurtasunean arrisku handia sortu izana.

c.2) Gazteendako jardueren, zerbitzuen edo instalazioen erabiltzaileei kalte fisiko edo psikiko larria eragin izana.

c.3) Gazteendako jardueren, zerbitzuen edo instalazioen erabiltzaileen osasunean edo segurtasunean arrisku handia sortu izana, eta erabiltzaile kopuru handia kaltetu izana, nahiz eta kaltea larria ez izan.

d) Nafarroako Gobernuak sustatzen dituen gazte txartelak ematea Gobernuaren beraren baimenik edo horretarako gaitzen duen titulurik izan gabe.

e) Gazteendako instalazioei dagokienez, langileek eskatzen diren titulurik ez izatea, erantzukizun zibileko aseguru polizarik ez edukitzea, larrialdi planik ez izatea eta baimendutako jende kopurua gainditzea.

f) Aisialdiko jarduerak egitea horretarako langile tituludunik izan gabe eta material egokia eduki gabe, eta baimenen eta segurtasunaren arloan ezarritako arauak bete gabe.

g) Aire zabalean jarduerak egin izana dagokion baimena aurkeztu gabe, edo, aurkeztu bada ere, kasuan-kasuan aplikatzekoa den araudian ezarritako segurtasun eta higiene betebeharrak urratu izana.

86. artikulua. Arau-hauste oso astunak.

Arau-hauste oso astunak izanen dira honako hauek:

a) Ikuskapenari ezetza eman edo oztopatzea eta, horren ondorioz, eragozte.

b) Arau-hauste astuntzat jotzen direnak, gazteendako jardueren, zerbitzuen, ekipamenduen edo instalazioen erabiltzaileen osasun edo segurtasunerako arrisku larria dagoenean, edo kalte fisiko edo psikiko larria egiten denean, zabarkeria larria edo araua hausteko asmoa atzematen denean bi kasuetan.

c) Gazteendako instalazio transferituak edo kudeaketa eskuordetua dutenak instalazioen gaineko hitzarmenean edo egintzan ageri den xederako ez erabiltzea, baizik eta beste baterako, eta, edozein modutan ere, gazteentzat soilik diren jarduera edo zerbitzuetarako ez erabiltzea.

d) Gazteendako instalazioetan edo jardueretan arrazakeria, xenofobia, indarkeria edo balio demokratikoen kontrako beste jokabide batzuk izatea edo baimentzea.

2. atala **Zehapenak**

87. artikulua. Zehapen-prozedura.

1. Administrazio-prozedura erkidearen araudian ezarritako printzipioetara egokituko da zehapen-prozedura.

2. Ikuskapen jarduketan bidez atzematen denean erabiltzaileei edozein kalte berehala eragiteko arriskua dagoela araudiaren arau-hauste astun bat dela-eta, arloan eskumena duen organoak, arrazoituta ebazpen bidez, ondoren jasotako behin-behineko neurriak hartzen ahalko ditu, proportzionaltasun irizpideei jarraikiz:

a) Ekipamendua edo instalazioa guztiz edo partez ixtea.

b) Jarduera edo zerbitzua guztiz edo partez gelditzea.

3. Aurreko paragrafoak aipatutako neurrien iraupena kasu bakoitzean ezarriko da, baina ezin izanen da luzatu kasu zehatz bakoitzean ezarritako kautelazko helburuak betetzeko behar dena baino gehiago.

4. Kautelazko neurriak hartuz gero, interesdunei aurretiaz entzutea emanen zaie, jakinarazpena egin eta bost egun balioduneko epean, salbu eta kasuan kasuko arrisku egoerak eskatzen badu neurriak berehalakoan gauzatzea. Halakoetan, neurriak hartzea erabakitzen duen ebazpenaren jakinarazpenean adieraziko da. Azken egoera horretan, titularrak adosten diren modu eta epean bete beharko ditu hartutako neurriak, horrek galaz gabe alegazioak egiteko eskubidea gauzatzea eta egoki jotzen dituen agiriak eta justifikazioak aurkeztea; azken horiek neurriak hartu zituen organoak baloratu beharko ditu, neurriak mantentzeko, zuzentzeko edo baliogabetzeko.

88. artikulua. Zehapen motak.

1. Foru lege honetan sailkatutako arau-haustek zehapen hauek izanen dituzte:

a) Arau-hauste arinak ohartarazpen idaziarekin edo 200 eurotik 2.000 eurora bitarteko isunarekin zehatuko dira.

b) Arau-hauste astunak 2.000,01 eurotik 20.000 eurora bitarteko isunarekin zehatuko dira eta, gainera, gazteriaren arloko jarduerak egiteko administrazio baimena lortzeko debekua jarriko da edo baimena kenduko da, sei hilabeterako gehienez ere.

Horretaz gainera, zilegi izanen da zehapen hauetako bat edo batzuk jartzea, bidezkoa dena kontuan harturik, arau-haustearen eta erantzulearen izaeraren arabera:

b.1) Instalazioa, aisialdiko hezkuntzarako eskola edo informazio zerbitzua lau urterako ixtea, gehienez ere.

b.2) Gazteriaren arloko profesionala lau urterako desgaitzea, gehienez ere.

c) Arau-hauste oso astunak 20.000,01 eurotik 100.000 eurora bitarteko isunarekin zehatuko dira eta, gainera, gazteriaren arloko jarduerak egiteko administrazio baimena lortzeko debekua jarriko da edo baimena kenduko da, hamabi hilabeterako, gehienez ere.

Horretaz gainera, zilegi izanen da zehapen hauetakoren bat edo batzuk jartzea, bidezkoa dena kontuan harturik, arau-haustearen eta erantzulearen izaeraren arabera:

c.1) Instalazioa, aisialdiko eskola edo informazio zerbitzua lau urtetik gorako aldirako edo betiko ixtea.

c.2) Gazteriaren arloko profesionala lau urtetik gorako aldirako edo betiko desgaitzea.

c.3) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren dirulaguntzak jasotzeko bost urtera arte desgaitzea.

2. Zehapena ezartzeak ez du baztertzeko kalte eta galeren ondoriozko ordaina ezarri ahal izatea arau-hausleari.

89. artikulua. Zehapenen mailakatzea.

Isunen zenbatekoa zehazteko eta gainerako zehapenak aplikatzeko, organo eskudunak honako mailakatze irizpide hauek erabiliko ditu:

a) Nolakoak diren sortutako kalte fisiko, moral eta materialak.

b) Kaltea jasan duten pertsonen kopurua.

c) Sortutako arriskua.

d) Arau-hauslearen asmoa edo doloa.

e) Lortutako legez kontrako onura.

f) Espedientea irekitzea eragin duten anomaliak borondatez konpontzea, prozedura tramitatu baino lehen edo bitartean.

g) Berrerortzea, urtebetean eite bereko arau-hauste bat baino gehiago egin bada, administrazio ebazpen batek berariaz hala deklaratu.

90. artikulua. Arau-hausteak eta zehapenak preskribatzeko araubidea.

1. Arau-hauste arinek egin eta sei hilabetera preskribatuko dute; astunak bi urtera, eta oso astunak hiru urtera.

Etengabeko jokabide baten ondoriozko arau-haustetan, preskripzio epea kontatzeko hasierako eguna jarduera bukatu zenekoa izanen da, edo arau-haustea gauzatzea eragin duen azken egintzarena.

2. Arau-hauste arinengatik ezartzen diren zehapenak urtebeteren buruan preskribatuko dute, arau-hauste astunengatik ezartzen direnek bi urteren buruan eta arau-hauste oso astunengatik ezartzen direnek hiru urteren buruan.

91. artikulua. Organo eskudunak.

1. Eskumena izanen du foru lege honetan jasotako zehapen-prozedurari ekiteko, bai eta zehapenak ebazteko eta ezartzeko ere, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eskumenei dago-kienez:

a) Arau-hauste arin eta astunen zehapenetarako, Nafarroako Gazteriaren Institutuko zuzendari-kudeatzailea.

b) Arau-hauste oso astunen zehapenetarako, gazteriaren arloko eskumena duen departamentuko titularra.

2. Nafarroako Foru Komunitateko gainerako administrazio publikoetan, foru lege honetan jasotako zehapen-prozedura hasteko eta arau-hausteen- gatik zehapenak jartzeko eskumenak dituzten agintzaritzak hautatuko dira agintaritzaren horien arau- dian xedatutakoarekin bat.

3. Edozein administrazio eskudunek zehapen- prozedurei hasiera ematean, horiek jartzea erabaki- tzen duenak kasuan-kasuan dagokion udal edo autonomia organoari jakinarazi beharko dio.

Xedapen gehigarri bakarra.

Nafarroako Gobernua baimentzen da egunera- tu dezan lege honetan ezarritako zehapenen zen- batekoa, gazteriaren arloko eskumena duen departamentuak txostena egin ondoren.

Xedapen indargabetzaile bakarra.

Indarrik gabe uzten dira foru lege honetan eza- rritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak, eta, zehazki, Gazte- riari buruzko apirilaren 1eko 11/2011 Foru Legea eta urriaren 4ko 93/2017 Foru Dekretua, zeinaren bidez arautzen baita gazteen politika publikoei buruzko elkarrizketa egituratua.

Azken xedapenetako lehena. Erregelamen- duzko garapena.

1. Ahalmena ematen zaie Nafarroako Gober- nuari eta gazteriaren arloan eskuduna den depar- tamentuko titularrari, foru lege hau aplikatu eta

garatzeko eska daitezkeen erregelamendu xedapenak eman ditzaten.

2. Nafarroako Foru Administrazioak, foru lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean, behar diren neurriak hartuko ditu, gazteen sektorearen antolakuntza egokitzeko, batez ere Nafarroako Gazteriaren Institutuari atxikitako kontsulta eta koordinazio kide anitzeko organoei dagokienez, bai eta aurreko legeriaren arabera ezarritako arauzko garapenari dagokionez ere.

3. Foru lege honek indarra hartu eta bederatzi hilabeteko epean, gazteriaren arloko eskumena duen departamentuak behar diren xedapenak emanen ditu, gazte erakundeen ordezkari izan den batzorde kudeatzaile bat eratzeko, Nafarroako Gazteriaren Foroaren eraketa artikulatzeko. Horrez gain, organo hori arautzeko foru dekretua prestatzea eta onestea sustatuko da.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeit hamar egunen buruan hartuko du indarra.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

**11-26/MOC-00099. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-
tzen baita Nafarroako biogasaren eta biometanoaren sektoreari buruz-
ko lurralde-, ingurumen- eta agronomia-plangintza bat aurkez dezan,
ezarpen-irizpide argiak eta objektiboak ezarriko dituen**

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako biogasaren eta biometanoaren sektoreari buruzko lurralde-, ingurumen- eta agronomia-plangintza bat aurkez dezan, ezarpen-irizpide argiak eta objektiboak ezarriko dituen.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean eztabaidatzeko:

Nafarroako Gobernua premiatzea aurkez dezan Nafarroako biogasaren eta biometanoaren sektorearen lurralde-, ingurumen- eta agronomia-plangintza bat, zeinak ezarriko baititu ezarpen-irizpide argiak eta objektiboak.

Zioen azalpena

Nafarroako Parlamentuak ingurumen-eragina duten jardueri buruzko 17/2020 Foru Legearen aldaketa bat onetsi zuen, aldi baterako luzamendu bat ezartze aldera Nafarroarako biogas- eta biometano-proiektu berrien gainean.

Lege hori ez zen sortu sektorea denbora zehaztugabez geldiarazteko, ez eta gatazka soziala artifizialki elikatzeko ere, baizik eta, hain zuzen ere, ordena juridikoa, lurraldekoa, agronomikoa eta ingurumenekoa ezartzen saiatzeko, Nafarroako Gobernuak berak sortutako kaos erraldoiaren erdian.

Izan ere, komeni da funtsezko zerbait gogoraztea: egungo egoera ez da berez sortzen. Nafarroako Gobernuak berak bultzatu du Nafarroako Biogasaren Agenda, espedienteak izapidetu ditu, ingurumen-baimenak eman ditu, foru-intereseko deklarazioak faboratu ditu, eta proiektu ugari fase oso aurreratuak lortzea ahalbidetu zuen, alde zuzenetik lurralde-plangintzarik, adostasun sozialik eta ingurumen- eta agronomia-kudeaketako esparru aski giririk eraiki gabe.

Eta gogorazi behar da, halaber, hori guztia ez zela huts-hutsean Nafarroako Gobernuaren ardurapean gertatu, baizik eta prozesu honetan guztian eutsi dioten alderdien babes politiko eta parlamentarioarekin.

Eraitza begi-bistakoa izan da:

Gero eta gizarte-gatazka handiagoa, auzokoen mesfidantza, erakundeen arteko liskarrak eta inprobisazio-sentsazio izugarria Nafarroako hainbat udalerritan.

Izan ere, sakoneko benetako arazoa ez da biogasa bakarrik izan: benetako arazoa izan da lurraldea antolatu aurretik proiektuak bizkortu nahi

izan zituen gobernu bat, eta larriena da gatazka hori hazten hasi zenean Nafarroako Gobernuak politikoki desagertu egin zela. Ez zuen lege espezifikorik aurkeztu, ez zuen sektorearen benetako lurralde-antolamendurik bultzatu, ez zuen lurralde-ikuspegitik garatu Biogasaren Nafarroako Agenda bera ere, zeina berak sustatu baitzuen, ez zuen gidatu tokiko eta auzoetako partaidetza-prozesu seriorik, eta, era berean, ez zuen bere gain hartu aurretik sustatu zituen foru-intereseko baimenen eta deklarazioen gaineko erantzukizun politikorik.

Bitartean, udalerrri askok, hilabeteetan zehar, erabat bakarrik egotearen sentsazioa izan zuten, ikuspegi tekniko, ingurumeneko eta juridikotik izugarri konplexuak ziren proiektuen aurrean, informazio nahikorik gabe, plangintza argirik gabe eta, askotan, Nafarroako Gobernuak berak hasieratik bermatu beharko zuen laguntza instituzionalik gabe.

Izan ere, eztabaida horren atzean ez zeuden administrazio-espeditenteak edo txosten teknikoak bakarrik: herriak zeuden, nekazariak, kontzejuko eta udalak gainezkatuta. Informazio publikoak, gardentasunak eta benetako parte-hartzeak baino askoz ere azkarrago aurrera egiten zuten proiektuen aurrean, auzokide batzuek ziurgabetasun-eta babesgabetasun-sentsazio handia zuten.

Eta batzuk eztabaida guztia kontsigna ideologiko soiletara edo beldur iraunkorreko diskurtsoetara murrizten saiatzen ziren bitartean, UPNk lurraldeari zuzenean entzutea erabaki zuen, UPNk ez baitzituen herriak bakarrik utzi gobernuak beste alde batera begiratu zuenean.

UPNk udalerrri ukituei eta haien eragile sozial eta ekonomikoentzuz entzun egin zien, eta Nafarroa ingurumenaren nahiz zuzenbidearen aldetik babestuko zuen irtenbide bat defendatu zuen.

Komeni baita oso garrantzitsua den zerbaite gogoratzea: UPNk ez zuen oportunismo politikotik ez eta guztiari ezetza ematearen jarreratik defendatu luzamendua. Hura defendatu zuen juridikoki serioa eta arduratsua zen bide bakarra zelako udalerrri kaltetuak babesteko eta, aldi berean, Nafarroa izugarriko arriskuan ez jartzeko Administrazioak berak lehenagotik emandako foru-intereseko baimen eta aitortzen ondoriozko deuseztasun, errekurtsio eta milioikako kalte-ordainen ildoan.

Jada onartuta zeuden proiektuak edo baime-nak bereizgabeki deuseztatzea, baina horrek Foru Komunitatearentzat izan zitzakeen ondorio juridiko eta ekonomiko handiak baloratu gabe, proposatzen zutenen aurrean, UPNk bide arduratsua defendatu zuen: luzamendu juridikoki segurua, zuzenbide-estatuarekin bateragarria eta aurrera

egiten jarraitu aurretik sektorea antolatzera bideratua.

Izan ere, batzuek plangintza nahikorik gabeko proiektuak bultzatzen zituzten bitartean eta beste batzuek konponbide juridikoki bideraezinak planteatzen edo, besterik gabe, gizarte-beldurra elikatzen zuten bitartean, UPN izan zen honako hauen bateragarritasuna bilatzen saiatu zen alderdi bakarra:

- herrien defentsa,
- ingurumenaren babesa,
- segurtasun juridikoa
- eta sektorearen lurralde-antolamendurako zinezko premia.

Horri esker, gogoetarako, partaidetzarako eta lurralde-ebaluaziorako denbora bat ireki ahal izan zen.

Hala ere, luzamendua onetsi eta hilabete batzuetara, ez da ikusten Nafarroako Gobernuak sektorea antolatzeko benetako lanik egin duenik. Ez dago lurralde-plangintza argirik, ez da gaitasunmugarik ezarri, ezta ezarpen-irizpide objektiborik ere, ez dago digestatoetarako lurralde-ahalmenaren maparik, ez da aurkeztu logistika- eta ingurumenkontrolerako estrategia seriorik, eta halaber ez da publikoki esplikatzen zein den gobernuak Nafarroarentzat nahi duen benetako eredua.

Eta, gainera, badago beste elementu bereziki larri bat, agerian uzten duena Nafarroako Gobernuak zenbateraino jarraitzen duen egin gabe luzamendua bera politikoki justifikatu zuen lana. Luzamendu hori onartzeak lotura estua zuen ingurumen-, agronomia- eta lurralde-antolamenduko benetako esparru bat garatzeko behararekin, honako hauei dagokienez garatu ere: digestatoak, ongarritze organikoa, mindak, kutsadura lausoa eta nitratoekiko kalteberak diren eremuak.

Izan ere, sakoneko benetako arazoa ez zen inoiz energiari buruzkoa soilik izan: agronomia, lurralde eta ingurumenaren alorretakoa ere bazen, eta hain zuzen hortxe jarraitzen du gobernuak erantzun behar bezain argi eta zorrotzik eman gabe.

Luzamendua onetsi zenetik hilabete batzuetara, oraindik ez dugu ezagutzen:

- digestatoak kudeatzeko lurralde-gaitasunaren benetako maparik,
- nitrogeno-kargari buruzko metatze-irizpiderik,
- eremukako muga objektiborik,
- kutsadura lausoarekiko kalteberak diren eremuetako plangintza seriorik,

- instalazio horiekin zerikusia duen ongarritze organikoari buruzko erregulazio aski argirik ere ez.

Hau da: luzamenduarekin, gobernuak berak inplizituki aitortu zuen Nafarroak sektorea antolatu beharra zeukala aurrera egiten jarraitu aurretik.

Baina legearen onspenaren ondoren, Gobernu politikoari desagertu egin zen berriro.

Eta, bitartean, udalerriek, kontzejuek, nekazari- eta auzotarrek jasaten dute oraindik presio osoa, ziurgabetasun guztia eta administrazio-inprobisazioan emandako urteek sortutako lurralde-gatazka guztia.

Horrek guztiak agerian uzten du Exekutiboak inprobisazioz jarduten jarraitzen duela, presioa eta gatazka toki-erakundeetara eramanez, bereak diren erantzukizun politiko eta administrazioak erabat bere gain hartzea saihesten duen bitartean. Horregatik hain zuzen ere, ezinbestekoa da gobernuak luzamendua etenaldi politiko huts gisa erabiltzeari uztea eta, behingoz, Nafarroak oraindik itxaroten jarraitzen duen plangintza-, antolamendu- eta arauketa-lanari ekin diezaion.

Luzamendua luzatzea ez litzateke gehiegizko zuzartzearen ondorio izanen, baizik eta Nafarroako Gobernuaren ageriko gaitasun ezarena, zertarako eta haren onspena politikoki justifikatu zuen lurralde-, ingurumen- eta agronomia-plangintza garaiz eta behar bezala garatzeko.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak erabakitzen du:

1. Nafarroako Gobernuak premiatzea aurkez dezan Nafarroako biogasaren eta biometanoaren sektorearen lurralde-, ingurumen- eta agronomia-plangintza bat, zeinak ezarriko baititu ezarpen-irizpide argiak eta objektiboak, eremuen arabera-

ko ahalmen-mugak, digestato-kudeaketa, plangintza logistikoa, inpaktuen metatze-ebaluazioa eta udalek eta herritarrek parte hartzeko bide errealak.

2. Nafarroako Gobernuak premiatzea luzamendua onetsi zenetik egindako jarduketak guztiei buruzko txosten osatu bat bidal diezaion Nafarroako Parlamentuari, bertan jasorik Nafarroan dauden biogas- eta biometano-proiektu guztien egoera eguneratua, emandako, etendako edo deuseztatutako baimeak, izapidetutako foru-intereseko deklarazioak eta sektorearen zuzenbide-, ingurumen- eta lurralde-segurtasuna bermatzeko hartutako neurriak.

3. Nafarroako Gobernuak premiatzea luzamenduari esparruan aurreikusitako sektorearteko mahaiaren deialdia modu eraginkor eta loteslean egin dezan, udalen, kontzejuen, toki-entitateen, nekazaritza-erakundeen, kooperatiben, aditu teknikoaren, unibertsitateen, auzo-plataformen eta sektorearen ordezkarien parte-hartze eraginkorra bermaturik, Nafarroan biogasa eta biometanoa garatzeko eredu ordenatu, garden eta lurralde-orekaskoa definitzeko xedez.

4. Nafarroako Gobernuak premiatzea proposamen bat egin dezan, denboran zabaltzeko ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen 17/2020 Foru Legea aldatzearen ondoriozko luzamendua, agerikoa baita departamentuak berak ez duela sektorearen arau-, lurralde-, agronomia- eta ingurumen-garapenik egin, oraindik ez baita bete Nafarroako Parlamentuak hura onestea politikoki justifikatu zuten antolamendu-, plangintza- eta erregulazio-helburuen zati mardul bat.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 28an

Foru-parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

11-26/MOC-00102. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuaren premia-tzen baita lehen sektoreari, nekazaritzako elikagaien sektoreari eta landa garapenari eragiten dioten administrazio-prozedurak berrikusi, sinplifikatu eta arindu ditzan

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuaren premia-tzen baita lehen sektoreari, nekazaritzako elikagaien sektoreari eta landa garapenari eragiten dioten administrazio-prozedurak berrikusi, sinplifikatu eta arindu ditzan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean eztabaidatua izan dadin:

Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premia-tzen da lehen sektoreari, nekazaritzako elikagaien sektoreari eta landa garapenari eragiten dioten administrazio-prozedurak berrikusi, sinplifika eta arin ditzan.

Zioen azalpena

Lehen sektorea eta nekazaritzako elikagaien sektorea Nafarroako ekonomiaren, gizartearen eta lurraldearen zutabeetako bat dira. Nekazaritzak, abeltzaintzak, nekazaritzako elikagaien industriak, kooperatibek, familia-ustiatzek, landa-enpresa txikiak eta landa-garapenari lotutako jarduerak enplegua sortzen dute, biztanleria finkatzen dute, lurraldea bizirik mantentzen dute, gure herriak egituratzen dituzte eta elikagaien

ekoizpen segurua, profesionalizatu eta estrategikoa bermatzen dute.

Hala ere, azken urteotan sektore hori gero eta zama administratibo handiagoa jasaten ari da, bai Europako eta Estatuko araudietatik bai Foru Administrazioaren prozedura berekietatik eratorria. NPBrilotutako izapideak, nekazaritza- eta ingurumenlaguntzak, ustiatzekin modernizazioa, gazteak erakartzea, abeltzaintzako erregistroak, ingurumenbaimenak, nekazaritzako elikagaien industriak, ureztatzeak, lurzati-biltzeak, ziurtagiri-jaulkipenak, ikuskapenak, lizentziak, dirulaguntzak, baimenak eta kontrolak gehiegitan prozesu luze, konplexu, errepikakor eta kudeagaitz bihurtu dira.

Egoera horrek bereziki eragiten die nekazariei, abeltzainei, sektorean sartu nahi duten gazteei, familia-ustiatzeki txikiak, kooperatibei eta nekazaritzako elikagaien ETEei, ez baitute beti administrazio-egitura nahikorik izaten dokumentazio, eskakizun, plataforma digital, komunikazio, epe, zuzenketa eta kontrol bolumen gero eta handiagoari bermeekin aurre egiteko.

Administrazioak bermatu behar du araudia betetzen dela, segurtasun juridikoa, ingurumenaren babesa, trazabilitatea eta funts publikoen erabilera egokia. Baina hori guztia proportzionaltasun, argitasun, arintasun eta zerbitzu publikoko irizpideekin egin behar da. Burokrazia ezin da oztopo bihurtu, halakoa zeinak jarduera ekonomikoari pizgarria kentzen baitio, inbertsioak berandutzen baititu, proiektuak blokeatzen baititu, belaunaldi-erreleboa zailtzen baitu edo sistematik nor eta, hain zuzen, landa-inguruneari eusten dioten haiek kanporatzen baititu.

Nafarroan badaude zenbait administrazio-prozedura, departamentuen, erakunde publikoen, toki-entitateen, toki-ekintzako taldeen, sozietate publikoen eta estatuko edo Europako administrazioen artean gainjartzen direnak. Beste kasu batzuetan, jarraibide argirik ezak, epe eraginkorrik ezak, ebazpen-emateen berandutzeak, plataforma digitalen konplexutasunak edo jadanik Administrazioaren eskuetan badagoen dokumentazioa halere eskatzeak, horrek guztiak segurtasunik eza, denboragaltzea, gailuzkoak eta frustrazioa sortzen dituzte sektorean.

Beraz, beharrezkoa gertatzen da Nafarroako Gobernuak berrikuspen integrala egitea lehen sektoreari, nekazaritzako elikagaien sektoreari eta landa-garapenari eragiten dieten administrazio-prozeduren gainean, halatan identifikatzearren itogune nagusiak, berandutzeak, bikoiztasunak, beharrezkoak ez diren kargak eta sinplifikatzeko modukoak diren gaiak.

Berrikuspen hori sektorearen benetako parte-hartzearekin egin behar da, eta, bereziki, kontuan hartuta Nafarroako Nekazaritza Kontseiluak nekazaritza-arloko solaskidetza- eta eztabaida-organo gisa duen zeregina. Nekazaritza-erakunde profesionalek, nekazaritzako elikagaien kooperatibek, toki-entitateek, nekazaritzako elikagaien industriek, ureztatzaileen komunitateek, ingurumeneko basozainek, kudeatzaileek eta profesionalek bertatik bertara ezagutzen dituzte administrazio-izapidetzearen benetako zailtasunak. Horregatik, atzerapenak, bikoiztasunak, zuzenketak eta karga burokratikoak egunero jasaten dituztenei entzuten ez dien sinplifikazio-prozesu orok beste tramite erantsi bat bihurtzeko arriskua du, lehen sektorearentzako eta nekazaritzako elikagaien sektorearentzako konponbide eraginkorra izan beharrean.

Helburutzat ez da hartu behar funtsezko kontrolak murriztea edo zuzenbide, ingurumen edo osasungintzako bermeak ahultzea, baizik eta administrazio eraginkorragoa, argiagoa, aurreikusgarriagoa eta ekoizpen-sektorearengandik hurbilagoa eraikitzea. Lagundu, erraztu eta ebatzi eginen duen administrazio bat, oztopo gehigarri bihurtu beharrean.

Sinplifikazio administratiboa ez da kontu makala, ez eta antolaketa hutsekoa ere. Ezinbesteko baldintza da lehen sektorearen eta nekazaritzako elikagaien sektorearen lehiakortasunerako, belau-naldien arteko erreleborako, ustiategiak modernizatzeako eta landa-inguruneko inbertsioak blokeaturik ez geratzeko atzerapen, bikoiztasun edo dokumentazio-eskaera neurrigabeen ondorioz. Espediente batean galdutako hilabete bakoitzak, beharrezkoa

ez den zuzenketa bakoitzak eta izapide errepikatu bakoitzak ondorio ekonomiko errealak ditu ekoizten, inbertitzen eta lurraldea bizirik mantentzen dutenentzat.

Erabaki-proposamenak:

Lehenbizikoa. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du egin dezan, gehiezez ere hiru hilabeteko epean, lehen sektoreari, nekazaritzako elikagaien industriari, ingurumenari eta landa-garapenari eragiten dieten administrazio-prozedurei buruzko txosten integral bat, non identifikatuko diren arazo nagusiak, atzerapenak, bikoiztasunak, beharrezkoak ez diren kargak eta administrazio-koordinazioko defizitak. Txosten hori Nafarroako Nekazaritza Kontseiluan aurkeztu eta eztabaidatu beharko da, eta honako hauek hartuko dute parte: nekazaritzako erakunde profesionalek, nekazaritzako elikagaien kooperatibek, toki-entitateek, nekazaritzako elikagaien industriek, ureztatzaileen komunitateek, nekazari eta abeltzain gazteek, ingurumeneko basozainek, landa-teknikariek eta inplikaturako gainerako eragileek.

Bigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du txosten horrekin batera sinplifikazio administratiborako plan zehatz bat aurkez dezan, epeak murrizteko, bikoiztasunak ezabatzeko, irizpideak bateratzeko, "behin bakarrik" printzipioa aplikatzeko, prozedura nagusiei buruzko jarraibide argiak eta eskuragarriak ezartzeko eta leihatila administratibo bateratu bat gaitzeko nekazariarentzat, abeltzaintzarentzat, kooperatibentzat, nekazaritzako elikagaien industriarentzat eta landa-proiektuen sustatzaileentzat. Plan horrek egikaritze-egutegi bat, arduradun administratibo batzuk eta jarraipen-sistema bat ezarri beharko ditu, eta Nafarroako Parlamentuari, Nafarroako Nekazaritza Kontseiluari eta sektoreko partaidetza-organoei bidaliko zaie.

Iruñean, 2026ko ekainaren 4an

Foru-parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

**11-25/MOC-00165. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-
tzen baita Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioko Ministerioa
premia dezan Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak berriro
komunika diezazkion Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutu-
ko Ikuskaritza Medikoari Nafarroako enpresetako langileei buruzko
datu-baseak**

*ESKUBIDE SOZIALETAKO, EKONOMIA SOZIALEKO ETA ENPLEGUKO BATZORDEAN
IZAPIDETZEA*

2026ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Batzordean izapidetu dadin Domingo González Martínez jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-
tzen baita Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioko Ministerioa premia dezan Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak

berriro komunika diezazkion Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko Ikuskaritza Medikoari Nafarroako enpresetako langileei buruzko datu-baseak. Mozioa 2025eko abenduaren 10eko 146. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**11-26/MOC-00003. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak
premiatzen baita Nafarroako gizarte-deskonexioko egoerari buruzko
diagnosi bat presta dezan eta bakardadetik gizarte-konexiora pasatzeko
estrategia bat zehaztu dezan**

LEHENDAKARITZA ETA BERDINTASUN BATZORDEAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritza eta Berdintasun Batzordeak 2026ko ekainaren 10ean onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-
tzen baita Nafarroako gizarte-deskonexioko egoerari buruzko diagnosi bat presta dezan eta bakardadetik gizarte-konexiora pasatzeko estrategia bat zehaztu dezan. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premia-
tzen du:

1. Nafarroako deskonexio sozialaren egoerari buruzko azterlan bat egitera, arazoak gure erkidegoan duen luze-zabala eta kausa nagusiak ezagutzeko.

2. Lortutako emaitzetan oinarrituta, Nafarroan gizarte-lotura sustatzeko estrategia bat lantzeraz, bermatuz ezen parte hartuko dutela kolektibo kalitetuenek, Nafarroako Udalerri eta Kontzejuen Federazioak eta gizarte-arloko, osasuneko eta hezkuntzako profesionalak.

3. Elkarlaguntza-taldeak eta ekimen komunitarioak sustatzea nahi ez den bakardadea prebenitzeko, gizarte osoa inplikaturaz lotura solidarioak eta komunitarioak sortzeko, gizarte erresilientea goa sustatzekoak”.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-26/MOC-00094. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lan-mahai bat susta dezan desgaitasun-balorazioak lortzeko egon litezkeen oztopoak zehazteko

ETXEBIZITZA, GAZTERIA ETA MIGRAZIO POLITIKETAKO BATZORDEAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Etxebizitza, Gazteria eta Migrazio Politiketako Batzordeak 2026ko ekainaren 10ean onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lan-mahai bat susta dezan desgaitasun-balorazioak lortzeko egon litezkeen oztopoak zehazteko. Erabakia eragin zuen mozioa Mikel Zabaleta Aramendia jaunak aurkeztu zuen, eta 2026ko maiatzaren 29ko

59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Hona testua:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lan-mahai bat susta dezan, Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiari lotutako zerbitzuen bidez eta 2026. urtea amaitu baino lehen, desgaitasun-balorazioak lortzeko egon litezkeen oztopoak zehazteko”.

Iruñean, 2026ko ekainaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-26/MOC-00088. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita 2026ko abenduaren 31 baino lehen lizita ditzan Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuan bidegabeko aberastearen egoeran dauden kontratuak

UNIBERTSITATE, BERRIKUNTZA ETA ERALDAKETA DIGITALEKO BATZORDEAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Unibertsitate, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko Batzordeak, 2026ko ekainaren 9an egindako bilkuran, ezetsi egin du Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita 2026ko abenduaren 31 baino lehen lizita ditzan Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuan bidegabeko aberastearen egoeran dauden kontratuak. Mozioa 2026ko maiatzaren 22ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko ekainaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-26/POR-00202. Galdera, Sendaviva parkeko obren esleipenean izandako faboritismoari buruzkoa*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, Sendaviva parkeko obren esleipenean izandako faboritismoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioaren eledun den Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Berma al dezakezu PSNko kargudun bakar batek ere ez zuela esku hartu Sendaviva parkeko obren adjudikazioen alde egiteko?

Iruñean, 2026ko ekainaren 1ean

Foru-parlamentaria: Javier García Jiménez

11-26/PES-00167. Galdera, 2022-2030eko aldirako Europako Haurren Bermearen Estatuko Ekintza Planari buruzkoa*MARÍA OLGA CHUECA CHUECA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Olga Chueca Chueca andreak egindako galdera, 2022-2030eko aldirako Europako Haurren Bermearen Estatuko Ekintza Planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Olga Chueca Chueca andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Parlamentuak Pobreziaren eta Desberdinkeriaaren aurkako Nafarroako Ituna (2021-2030) onetsi zuen. Itun horretan jasotako neurrien garapenaren jarraipena egiteko, batzorde berezi bat eratu da; besteak beste, itunean jasotako neurrien betetze-mailari buruzko informazioa biltzeko.

Neurrietako bat da Parlamentuak Familien, Haurren eta Nerabeen II. Plan Integrala gainbegiratu eta haren jarraipena eginen duela urtero. Gaur egun, plan hori amaituta dago, baina Haur,

Nerabe eta Familiei Laguntzeko 2025-2030 Estrategia Integrala diseinatu da, eta urteko plan operatiboak egin dira. Hori dela eta, honako galdera hauek egiten zaizkio Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuari:

– Zer ekintza/neurri gauzatzen ari da Nafarroako Gobernua 2022-2030eko aldirako Europako Haurren Bermearen Estatuko Ekintza Planari lotuta?

– Zer koordinazio-bide daude Nafarroako Gobernuaren eta Haur eta Nerabeen Eskubideen Zuzendaritza Nagusiaren eta Haur Pobreziaren aurkako Goi Komisarioaren artean, Europako Haurren Bermearen Estatuko Ekintza Plana koordinatzeari eta gainbegiratzeari dagokienez?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 28an

Foru-parlamentaria: Olga Chueca Chueca

11-26/PES-00168. Galdera, Mendiolako auzoaren eta N-121-A errepidearen bide berriaren arteko lotuneari aurkeztutako alegazioei buruzkoa

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak egindako galdera, Mendiolako auzoaren eta N-121-A errepidearen bide berriaren arteko lotuneari aurkeztutako alegazioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak baietza emanen al die Mendiola auzoa N-121-A errepidearen trazadura berriarekin bi noranzkoetan elkartzeko lotura dela eta Almandozek eta Baztango Udalak aurkeztutako alegazioei?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 29an

Foru-parlamentaria: Pedro González Felipe

11-26/PES-00169. Galdera, Mendiola auzoak bi norabideetan N-121-A errepidera izanen dituen sarbide berriei buruzkoa

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak egindako galdera, Mendiola auzoak bi norabideetan N-121-A errepidera izanen dituen sarbide berriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zer sarbide izanen ditu Mendiola auzoak, bi noranzkoetan, N-121-A errepidearen trazadura berrira?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 29an

Foru-parlamentaria: Pedro González Felipe

11-26/PES-00170. Galdera, Nafarroako Gobernuak Baztango Udaleko eta Almandozko ordezkariekin izandako bilerei buruzkoa

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak egindako galdera, Nafarroako Gobernuak Baztango Udaleko eta Almandozko ordezkariekin izandako bilerei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zer bilera egin ditu Nafarroako Gobernuak Baztango Udaleko eta Almandozko ordezkariekin, Mendiola auzotik N-121-A errepidearen trazadura berrira iristeko sarbideei dagokienez? Adierazi zer akordio lortu diren.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 29an

Foru-parlamentaria: Pedro González Felipe

11-26/PES-00171. Galdera, Mendiola auzotik N-121-A proiektu berrira aurreikusten diren sarbideen aldaketei buruzkoa

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak egindako galdera, Mendiola auzotik N-121-A proiektu berrira aurreikusten diren sarbideen aldaketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zer aldaketa izan dituzte Almandozko Mendiola auzotik N-121-A errepidearen proiektu berrira iristeko aurreikusitako sarbideek, bi noranzkoetan, hasierako proiektutik egungo exekuziora?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 29an

Foru-parlamentaria: Pedro González Felipe

11-26/PES-00172. Galdera, Abaigar eta Goñiko kanpaldiei buruzkoa

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako galdera, Abaigar eta Goñiko kanpaldiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

VOXeko kide eta Talde Mistoko foru-parlamentari den Emilio Jiménez Román jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten die Nafarroako Gobernuko hirugarren lehendakariorde Begoña Alfaro andreari eta Gazteriako Departamentuari, idatziz erantzun diezaioten:

Arabako Foru Aldundiak erabaki zuen Sarrea Euskal Udalekuak elkarteak antolatutako Berredoko kanpamentuaren jardura bertan behera uztea eta zehapen ekonomiko bat ezartzea. Hori ikusita, zer neurri hartuko ditu Gobernu honek eta, zehazki, zure departamentuak, elkarte horrek berak uda honetarako Abaigarren eta Goñin antolatutuen kanpamentuei dagokienez?

Iruñean, 2026ko ekainaren 3an

Foru-parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-26/PES-00173. Galdera, ChinaLink ESGT eta Energy China enpresekin edo horiekin lotura duten entitateekin eginiko bilerei buruzkoa

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, ChinaLink ESGT eta Energy China enpresekin edo horiekin lotura duten entitateekin eginiko bilerei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularra (PPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

2025eko azaroaren 26an, Nafarroako Gobernuak prentsa-ohar ofizial baten bidez jakinarazi zuen María Chivite Nafarroako Gobernuko lehendakariak harrera egin ziola ChinaLink ESGT eta Energy China enpresen ordezkari bati Nafarroako Jauregian, eta adierazi zuen konpainia horiek "energia berriztagarrien eta hidrogeno berdearen

sektorean negozio-aukerak aztertzen ari direla gaur egun Nafarroan".

Halaber, ohar horretan jasotzen denez, topaketa hori aurrez Txinara egindako bidaiak instituzional baten ondoren egin zen, zeinean lehendakariak bilerak egin baitzituen enpresa horietako ordezkariekin.

Aldi berean, Polizia Nazionaleko Delinkuentzia Ekonomiko eta Fiskalaren Unitateak (UDEF) konpainia horiek ikertu dituela adierazten duen informazioa argitaratu da, José Luis Rodríguez Zapatero Gobernuko presidente ohiari egindako balizko ordainketekin lotzen baititu. Hori dela eta, ahalik eta gardentasun handiena eta parlamentu-kontrol egokia lortze aldera, beharrezkoa da honako hauek ezagutzea:

Parte hartu al du José Luis Rodríguez Zapatero Gobernuko presidente ohiak edo bere izenean aritu den edozein pertsona fisiko edo juridikok edo haren lanbide- edo enpresa ingurunean kideren batek Nafarroako Gobernuak ChinaLink ESGT, Energy China edo horiei lotutako entitateekin izandako bileretan, dela horiek kudeatzen, bitartekaritza-lanak egiten, gomendioak ematen edo agenda prestatzen? Eta Txinako beste edozein enpresa edo korporazioarekin egindakoetan?

Erantzuna baiezkkoa bada, xeheki zehaztu zein pertsona fisiko edo juridikok esku hartu zuten, zein izan zen haien parte-hartzearen irismena, zer jarduketa egin ziren eta noiz egin ziren.

Iruñean, 2026ko ekainaren 3an

Foru-parlamentaria: Maribel García Malo

11-26/PES-00174. Galdera, ChinaLink ESGT eta Energy China enpresekin edo horiekin lotura duten entitateekin lortutako akordio, konpromiso edo elkar ulertze formal edo ez-formalei buruzkoa

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, ChinaLink ESGT eta Energy China enpresekin edo horiekin lotura duten entitateekin lortutako akordio, konpromiso edo elkar ulertze formal edo ez-formalei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularra (PPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

2025eko azaroaren 26an, Nafarroako Gobernuak prentsa-ohar ofizial baten bidez jakinarazi zuen María Chivite Nafarroako Gobernuko lehendakariak harrera egin ziola ChinaLink ESGT eta Energy China enpresen ordezkari bati Nafarro-

ako Jauregian, eta adierazi zuen konpainia horiek “energia berriztagarrien eta hidrogeno berdearen sektorean negozio-aukerak aztertzen ari direla gaur egun Nafarroan”.

Halaber, ohar horretan jasotzen denez, topaketa hori aurrez Txinara egindako bidaia instituzional baten ondoren egin zen, zeinean lehendakariak bilerak egin baitzituen enpresa horietako ordezkariekin.

Aldi berean, Polizia Nazionaleko Delinkuentzia Ekonomiko eta Fiskalaren Unitateak (UDEF) konpainia horiek ikertu dituela adierazten duen informazioa argitaratu da, José Luis Rodríguez Zapatero Gobernuko presidente ohiari egindako balizko ordainketekin lotzen baititu. Hori dela eta, ahalik eta gardentasun handiena eta parlamentu-kontrol egokia lortze aldera, beharrezkoa da honako hauek ezagutzea:

Lortu al da Nafarroako Gobernuaren orainaldi-ko edo etorkizuneko jarduketarik ekarriko duen akordio, konpromiso edo ulermen formal zein informalik ChinaLink ESGT, Energy China edo enpresa horiei lotutako entitateekin?

Erantzuna baiezkoa bada, zehatz-mehatz adierazi horien edukia, zer jarduketa aurreikusi ziren, zer alderdik esku hartu zuten eta zein egunetan gertatu ziren.

Iruñean, 2026ko ekainaren 3an

Foru-parlamentaria: Maribel García Malo

11-26/PES-00175. Galdera, ChinaLink ESGT eta Energy China enpresekin izandako lehen harremanari buruzkoa

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, ChinaLink ESGT eta Energy China enpresekin izandako lehen harremanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularra (PPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

2025eko azaroaren 26an, Nafarroako Gobernuak prentsa-ohar ofizial baten bidez jakinarazi zuen María Chivite Nafarroako Gobernuko lehendakariak harrera egin ziola ChinaLink ESGT eta Energy China enpresen ordezkari bati Nafarro-

ako Jauregian, eta adierazi zuen konpainia horiek “energia berriztagarrien eta hidrogeno berdearen sektorean negozio-aukerak aztertzen ari direla gaur egun Nafarroan”.

Halaber, ohar horretan jasotzen denez, topaketa hori aurrez Txinara egindako bidaia instituzional baten ondoren egin zen, zeinean lehendakariak bilerak egin baitzituen enpresa horietako ordezkariekin.

Aldi berean, Polizia Nazionaleko Delinkuentzia Ekonomiko eta Fiskalaren Unitateak (UDEF) konpainia horiek ikertu dituela adierazten duen informazioa argitaratu da, José Luis Rodríguez Zapatero Gobernuko presidente ohiari egindako balizko ordainketekin lotzen baititu. Hori dela eta, gardentasun ahalik eta handiena eta parlamentu-kontrol egokia lortze aldera, beharrezkoa da honako hauek ezagutzea:

Nork eman zuen lehen urratsa Nafarroako Gobernuaren (edo haren sozietate publikoen) eta ChinaLink ESGT eta Energy China enpresen arteko lehen kontaktua ezartzeko, eta zein pertsona fisikoa edo juridikoa bidez egin zen kontaktu hori?

Zehaztu esku hartu zuten pertsonen edo entitateen identitatea, kontaktu hori zer bitartekoren bidez egin zen eta zer egunetan egin zen.

Iruñean, 2026ko ekainaren 3an

Foru-parlamentaria: Maribel García Malo

11-26/PES-00176. Galdera, ICTS taldeari zerbitzuak esleitzeari buruzkoa

MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak egindako galdera, ICTS taldeari zerbitzuak esleitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Miguel Garrido Sola jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Ahoztar Zelaieta kazetariak egindako ikerketa baten arabera, Segurtasun Politikak Garatzeko Zerbitzuaren Zuzendaritzak zaintza-zerbitzuak esleitu zizkion, 2025etik 2027ra bitartean, Foruzaingoaren polizia-etxeetan eta Nafarroako ospitaleetan. I-SEC enpresa ICTS taldekoa da, eta aireportuko segurtasunaz ere arduratzen da.

ICTS taldeak sustrai sakonak ditu Israelen. Izan ere, ICTSren egoitza soziala Herbehereetan badago ere, I+Gko zentroa Israelen du. Gainera, Menachem J. Atzmon ICTSko presidentea kondanatu egin zuten 1996an hauteskunde-kanpainen finantzaketan iruzurra egiteagatik Israelgo Likud

alderdiko diruzaina zenean. Benjamin Netanyahu alderdi horretako kide da.

Informazioen arabera, ICTSren filiala den I-Sec enpresa hautatua izan zen Tuterako polizia-etxean eta Iruñeko polizia-etxe nagusian zaintza- eta segurtasun-lanak egiteko. Eta, halaber, Iruñeko Justizia Jauregiaren eta Iruñeko Erregistro Zibilaren kargura geratuko zen, baita Elkanoko Ubarmin Klinikaren, Tuterako Reina Sofía Ospitalearen eta Iruñeko San Francisco Javier Ospitalearen kargura ere.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dugu:

Ezagutzera emandako guztia egia bada, nola da bateragarria Nafarroako Gobernuak iragarri zuen politikarekin, hots, Israelgo enpresekin izandako merkataritza akordio guztiak –bereziki segurtasun-aren arlokoak– haustearekin?

Iruñean, 2026ko ekainaren 4an

Foru-parlamentaria: Miguel Garrido Sola

11-26/PES-00177. Galdera, Nafarroako administrazio publikoetako Funtzio Publikoaren Mahai Orokorreko ordezkari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Nafarroako administrazio publikoetako Funtzio Publikoaren Mahai Orokorreko ordezkari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak Barneko, Funtzio Publiko eta Justiziako Departamentuari egindako honako galdera hauek aurkezten dizkio Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun diezaien:

1. Administrazio Publikoetako Langileen Estatutu berriaren negoziazio-prozesuaren hasieran, aldatu egin zen Nafarroako Administrazio Publikoetako Funtzio Publikoko Mahai Orokorreko ordezkariak zenbatzeko irizpidea, jadanik kontuan hartu gabe ezen sindikatuen ordezkari zehazten zela, hauteskunde-aldi bakoitzean, foru-sektore instituzionalean eta toki-entitateetan hauteskundeak egin ondoren, aipatu mahaia eratzean, eta ez zela berriro zehazten 4 urteren buruan hurrengo hauteskundeak egin arte. Zergatik aldatu zen irizpide hori?

2. Izandako irizpide-aldaketak zerikusirik al du egitate batekin, zeina baita ezen, Nafarroako Administrazio Publikoen Funtzio Publikoko Mahai Orokorre eratu zen unean (2023ko urriaren 20an), mahai horretan zeuden bi sindikaturen artean (LAB eta ELAren artean, hain zuzen) % 50,24ko ordezkari zuekatela, % 49,76 egiten zuen gutxiengoaren aurrean?

3. Zer ordezkari zegoen Nafarroako Administrazio Publikoen Funtzio Publikoko Mahai Orokorrean 2024ko abenduaren 31n?

4. Zer ordezkaritza zegoen Nafarroako Administrazio Publikoen Funtzio Publikoko Mahai Orokorrean 2025eko ekainaren 30ean?

5. Zer ordezkaritza zegoen Nafarroako Administrazio Publikoen Funtzio Publikoko Mahai Orokorrean 2025eko abenduaren 31n?

6. Zer ordezkaritza zegoen Nafarroako Administrazio Publikoen Funtzio Publikoko Mahai Orokorrean 2026ko maiatzaren 31n?

7. Nafarroako Administrazio Publikoen Funtzio Publikoko Mahai Orokorrak egindako zein bilertan eman zen ordezkaritza-aldaketaren berri?

8. 2023ko urriaren 20an eraketarako egindakoa- ren ondoren, Nafarroako Administrazio Publikoen Funtzio Publikoko Mahai Orokorraren zer aktatan ageri da Administrazioak jakinarazten zuela ordezkaritza aldatzen joanen zela?

Iruñean, 2026ko ekainaren 4an

Foru-parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-26/PES-00178. Galdera, Artziko jauregiaren egoerari eta hura irekitzeko atzerapenaren arrazoiari buruzkoa

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Artziko jauregiaren egoerari eta hura irekitzeko atzerapenaren arrazoiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Artziko jauregiaren egoerari eta hura irekitzeko atzerapenaren arrazoiei buruzkoa:

Artziko jauregiak ur-hornidura, presio eta ponpaketa arazoak ditu, eta gaur egun hura irekitzea eragozten dute. Noiztik zuen Nafarroako Gobernuak arazo horien berri?

Zer txosten teknikorik identifikatu dituzte gabezia horiek, eta zergatik eman ditu Gobernuak azalpen publiko desberdinak azken hilabeteetan, funts publikoekin finantzatutako azpiegitura hori martxan jartzeko izandako atzerapenaren zergatiei buruz?

Iruñean, 2026ko ekainaren 4an

Foru-parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

11-26/PES-00179. Galdera, Garraioetako Ministerioak Zaragoza-Castejón abiadura handiko trenbiderako proposaturiko ibilbideak nekazaritza, lurraldean eta ureztatze-azpiegituretan eragin ditzakeen kalteei buruzkoa

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Garraioetako Ministerioak Zaragoza-Castejón abiadura handiko trenbiderako proposaturiko ibilbideak nekazaritza, lurraldean eta ureztatze-azpiegituretan eragin ditzakeen kalteei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du Garraio Ministerioak Zaragoza-Castejón abiadura handiko linearako planteatutako ibilbideak nekazaritza, lurraldean eta ureztatze-azpiegituretan eragin ditzakeen kalteei buruz, batez ere Ribaforadako ureztapena modernizatu eta handitzeari dagokionez?

Zer txosten tekniko, alegazio edo jarduketa egin ditu edo egiteko asmoa du Nafarroako Gobernuak, nekazaritza-lurzoru produktibo eta egungo nahiz etorkizuneko eremu ureztagarrietan eta Nafarroako Erriberan ureztatze-gaietarako aurreikusitako inbertsioetan horrek ahalik eta eragin txikiena izan dezan?

Iruñean, 2026ko ekainaren 4an

Foru-parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

11-26/PES-00180. Galdera, Txinatar enpresekiko konpromisoari buruzkoa

ANA MARÍA ELIZALDE URMENETA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Elizalde Urmeneta andreak egindako galdera, Txinatar enpresekiko konpromisoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ana Elizalde Urmeneta andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

Azkenaldian, Nafarroako Gobernuak, bai maila instituzionalean bai enpresa-mailan, Txinako Entitateekin dituen harremanak areagotu ditu. Horretarako, bilerak egin dira Espainian –Madrilen zein Nafarroan–, Txinan edo tarteko tokietan; Parisen, esaterako.

1. Zer konpromiso hartu ditu Nafarroako Gobernuak bilerak egin dituen Txinako enpresek?

2. Nafarroako Gobernuaren eta/edo Sodenaren eta Txinako agintari edo enpresa zehatzen arteko harremana bultzatu edo erraztu dutenak zein pertsona fisiko edo juridiko izan dira?

3. Zer irizpideren arabera ezarri ditu Nafarroako Gobernuak harremanak Txinako administrazio zehatz batzuekin edo Txinako enpresa zehatz batzuekin?

Iruñean, 2026ko ekainaren 4an

Foru-parlamentaria: Ana Elizalde Urmeneta

11-26/PES-00181. Galdera, ChinaLink ESGt eta Energy China enpresekiko edo haien filialekiko harremanei edo akordioei buruzkoa

ANA MARÍA ELIZALDE URMENETA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Elizalde Urmeneta andreak egindako galdera, ChinaLink ESGt eta Energy China enpresekiko edo haien filialekiko harremanei edo akordioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ana Elizalde Urmeneta andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

Ba al dago harremanik edo akordiorik Nafarroako Gobernuaren eta/edo Sodenaren eta ChinaLink ESGt eta Energy China enpresen edo haien eskumendeko enpresen artean?

Egonez gero, zertan datza? Zeintzuk dira Nafarroak hartutako konpromisoak? Zeintzuk dira enpresa horietako edozeinek bere gain hartutako betebeharrak?

Iruñean, 2026ko ekainaren 4an

Foru-parlamentaria: Ana Elizalde Urmeneta

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-25/PEOP-00002. Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzupeko artxiboko eta dokumentu-kudeaketako goi-mailako teknikaria izateko lanpostu bat, funtzionario-araubidekoa eta A mailakoa, oposizio bidez betetzeko

Izendapen-proposamena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 8an eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 16ko erabakiaren bidez, deialdi bat onetsi zuen, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzupeko artxiboko eta dokumentu-kudeaketako goi-mailako teknikaria izateko lanpostu bat, funtzionario-araubidekoa eta A mailakoa, oposizio bidez betetzekoa. Erabakia, oinarriekin batera, Parlamentuaren webgunean eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean (2025eko 79. NPAO, ekainaren 19koa) zein Nafarroako Aldizkari Ofizialean (2025eko 122. NAO, ekainaren 19koa) argitaratu zen, eta bi aldaketa egin zitzaizkion (biak 2025eko 197. NAO, urriaren 2koan, argitaratu ziren). Bada, deialdi horretako epaimahaiak, 2026ko ekainaren 5ean, gainditu duen eta deialdian guztira puntuaziorik handiena lortu duen izangaiaren aldeko izendapen-proposamena aurkeztu du (11-25/PEOP-00002).

Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren 5. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Izendapen-proposamena onestea, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzupeko artxiboko eta dokumentu-kudeaketako goi-mailako teknikaria izateko lanpostu bat, funtzionario-araubidekoa eta A mailakoa, oposizio bidez betetzeko deialdiko epaimahaiak gainditu duen eta deialdian guztira puntuaziorik handiena lortu duen izangaiaren alde eginikoa. Honako hau da:

– Gonzalo Goñi Equísoain jauna.

2. Gonzalo Goñi Equísoain jaunari eskatzea Legebiltzarreko Erregistro Orokorrean aurkez dezan deialdiko 8.3 oinarrian adierazten den dokumentazioa, izendapen-proposamena jakinarazi eta biharamunetik zenbatzen hasita 10 egun balioduneko epean.

3. Erabaki hau interesdunari jakinaraztea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/CCPE-00002. Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariaren ebazpena, zeinaren bidez María Dolores Saiz Agustín andrea izendatzen baita Nafarroako Kontuen Ganberaren funtzionario, sistema informatikoetako erdi mailako teknikari lanpostuan

Bukatu da Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzupeko sistema informatikoetako erdi mailako teknikari izateko bi plaza oposizio bidez betetzeko hautapen-prozesua. Deialdia Kontuen Ganberako lehendakariaren 2025eko martxoaren 20ko ebazpen bidez onetsi zen (apirilaren 10eko 72. NAO).

Kontuen Ganberako lehendakariaren 2026ko martxoaren 31ko ebazpen bidez, oposizioko kalifikazio-epaimahaiak María Dolores Saiz Agustín andreak alde egindako izendapen-proposamena onetsi zen (proposamena 2026ko apirilaren 24ko 41. NPAOn eta 2026ko apirilaren 24ko 80. NAO on argitaratu zen).

María Dolores Saiz Agustín andreak deialdiaren 7.3 oinarrian exijitzen diren dokumentuak aurkeztu ditu.

Horrenbestez, lehendakari naizen honek, dauzkadan eskumenak erabiliz, EBAZTEN DUT:

Lehena. María Dolores Saiz Agustín andrea Nafarroako Kontuen Ganberako funtzionario izendatzea, sistema informatikoetako erdi mailako teknikari lanpostuan.

Bigarrena. Izendatuak hilabeteko epea izanen du izendapen hau jakinarazten zaionetik aitzina bere lanpostuaz jabetzeko.

Hirugarrena. Xedatzea ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta erakunde honen webgunean argitara dadin, eta agintzea interesdunari jakinaraz dakion eta Nafarroako Kontuen Ganberako idazkari nagusiari helaraz dakion, izan beharreko ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

